

uk

186. zenbakia / 2010eko azaroaren 29a



1. pintxo lehiaketa • II concurso de pintxos

GetxOn egin

Abenduaren 18an eta 19an • 18 - 19 diciembre


Euskarazko hitz gozoak esan pintxoari!
Eusko Labeldun produktuen otzara zoragarria eta Basalbo jatetxean afari ederra irabaz ditzakezu!

¡Propea el pintxo en euskera!
¡Puedes ganar una cesta con productos Eusko Label y una cena en el restaurante Basalbo!



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Zuberoa Iturburu, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILAEK: Jorje Perez, Bitor Egurola, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
AHOLKULARITZA: Jokin Aspuru
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta

 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaioa da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



TRATU TXARREN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111
Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Bizkaiko Zubia obretan.
7. LEHEN ETA ORAIN. Sarri inguru, Getxo.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Jon Moran.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Azaro Kulturala, Lutxana.
28. ARGAZKIA. Kontuz trenagaz (Getxo), argazki zaharra.
30. BERBETAN. Kepa Acero surflari askea.
34. FOTOGRAFIA. Kepa Acero.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Eguzki Bideoak.
43. MUSIKA. Draa power metal taldea.
44. LIBURUAK. Amezetako Fernando.
45. KIROLAK. Euskal Makil Jokoa Getxon.
46. ELKARRIZKETA. Gira, bira munduari begira, Urtinxka Eskola.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. GetxOnegin Pintxo Txapelketa.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Altxaga Ikastola (Leioa), 1979.
54. AITORMENAK. Anje Duhalde.

Azala: Kepa Acero

www.ukaldizkaria.biz



30 Kepa Acero

Berbetan

Bidaiak, ezagututako jende eta kulturak, barneko gogoetak, bizipenak... eta zelan ez, surfa!



11 Jon Moran



54 Anje Duhalde



WWW.RENAULTLEIOA.COM

Leioa RENTACAR Tf. 682 466 466
bigailu-aholaturuz www.leioarentacar.com

Leioa Berri Auto
HARTU TXANDA ONLINE-CITA ONLINE
www.renaultleioa.com
Tf. 94 480 46 02



Bizkaito Foru Aldundia
Diputazio Foral de Bizkaia

Armando Llamosas

> arkeologoa

Ezkutuko kultura-ondarea

Azken urteotan asko hitz egiten da oroimen historikoari buruz. Seinale txarra. Oroimena izango bagenu, ez genuke hainbeste hitz egingo-eta. Dena den, oso astiro izan arren aurrera goaz. Badaude lege batzuk, instituzio batzuen ahaleginak (gutxi) eta erakunde eta elkarte independenteen ekintzak: Ahaztuak, Aranzadi edo, estatuari dagokionez, Asociacion para la Recuperacion de la Memoria Historica.

Gure eskualdean, aitzitik, gauza gutxi egin dira. Hau ez zen izan ez Elgeta, ez Ebro, zorionez ezta Cuelgamurosenak ere, faxisten kontrako defentsak baizik. Ikargarriak ez izan arren gerra zibilaren orbainak gure paisaian ere badaude. Gure eskualdea Burdin Gerrikoan sartuta zegoen eta, horren ondorioz, Bilboko defentsarako azpiegiturak hemen ere egin ziren, Sopelan eta Berangon batez ere, baina Urdulizen eta Barrikan ere bai.

Azpiegitura horiek ez dira monumentalak, bere zentzua ez zen memoria uztea, lekukoak izatea, edo gloriak gogoraraztea, hori irabazleentzat soilik erreserbatuta dago. Umilak dira, praktikoak eta, gainera, ikusten zailak, gerrarako azpiegiturak baitira.

Gure gizartea gerretatik urrun bizi da, mota horretako gatazkak telebistan daude eta geografian, zein mentalitatean urrun. Horregatik, hain zuzen, gure inguruko hondakinak garrantzitsuagoak dira.

Ondare horrekin gauza gutxi egin da, hitzaldiren bat, bisita-gidatu isolaturen bat eta gutxi gehiago. Santxo de Beurko elkar-teak horretaz ere lan egin du, eta, seguru asko, orokorrean adituenak dira. Hala ere, ikerketak falta dira, eta, batez ere, hondakin babesteko eta gizarteratzeko egitasmo serio bat. Ez dugu esan nahi aztarna guztiak mantendu behar direnik, baina jakin behar dugu zer dugun, zerk merezi duen



Getxoko kanposantuan, Frankisten hilobia

mantentzea, eta zer mantentzeko. Galdera horiek erantzun ostean, jakin behar dugu nola hedatu, eta zer den komenigarriena jendeak ezagut dezan.

Ondare horrek gogorarazten digu gure inguruan ere gerra izan zela. Italiarrak, faxistak, hain zuzen, gure kaleetan eta gure etxeetan izan zirela, armak eskutan eta gerrako ohiko krudeltasunarekin. Hemen geratu ziren defentsaren aztarnak: lubakiak, bunkerrak eta tirokatzeko pos-

tuak. Sastrakak eta basoak dena estali du. Aztarna horiek, zorionez, hala mantendu dira, ezkutatuta, jendearen arretaren zain, ez etsaien arreta, hiritarren arreta baizik.

Ondare horrek gogoratzen digu giza-kiak gairela eta historian zehar krudeltasuna, gerra eta bortizkeria gure ohiko ingurugiroa izan dela. Horregatik da kultura-ondarea, gure historia dakarkigulako, eta gu nor garen esaten digulako. Azken finean, kultura-ondarea hori da, besterik ez. ○

gu geu

Olatu onak zuretzat ere bai!

Olatuen arabera mugitzen dira gure eskualdeko gizon-emakume asko eta asko. Goizero esnatu eta itsasoak esaten die egun horretako plana zein izango den; ez dute beste ordutegirik, itsasoak agintzen die. Uda aurretik, barealdi garai luzea bizi izan zuen gure Kantauri Itsaso maiteak; surf-taula kotxean sartu eta itsasertzera hurreratu arren, neoprenoa busti barik bueltatzen ziren etxera Uribe Kostako surfariak. Azken asteotan barriz, itsasoa haserre bizian esnatu da egunero (auskalo zerk sutzen duen; Sahara aldetik datozen albisteek agian). Eta surfariak nekatuta eta irribarrez sartzen dira ohera, hurrengo eguneko olatuakaz amesteko prest.

186 zenbakira, itsasoa entzun, usaindu eta, batez ere, sentitzen duen algortar bati tarte handia egin diogu. Kepa Aceroren abenturak aurkituko dituzu Berbetan eta Fotografia ataletan. Bost kontinenteetan barna, bost olatu magikoren bila abiatu zen 2010eko maiatzean. Bizipenak eta sentipenak oparitu dizkigu, argazki eta berbetan aurkituko dituzunak.

Urtea amaitu aurreko azken aurreko zenbakian, olatu onak opa eta agurtuko zaitugu. Hurrengorako utziko ditugu "zorionak eta urte barri on" eta protokolo horiek guztiak.

UK-ko lantaldea

AREETA, 2010EKO AZAROAREN 22A

Puntak moztu eta tindatu/ *Look* aldaketa egingo diote Bizkaiko Zubiari laster. Hainbat pieza barritu behar zituztela-eta, aukera baliatuko dute zubia margotzeko: gris iluna alboratuko dute gainera, eta kolore bizia ipiniko diote. Hiru tonu aukeratu dute zubiko kudeatzaileek eta herritarrak ari dira bozkatzan zein duten gurago, bi gorririkak dira, eta hirugarrena, marroixka. Zubiko dendetan bozka daiteke, Areetan eta Portugaleten, bertan topa eta bete daiteke formularioa. Bizkaiko Zubia gizon-emakume guztien ondare izendatu zuten duela urte batzuk. ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

Mundutik mundura euskararen olatuan

ENEKO ACERO

www.auskeraezere.aiz

Sarekoak:

Itelak:

IZENADUBA BASOA
izena duen gaitia, beti

Zer
Goazen Olentzeroren etxera!
5-11 urte bitartekoentzat.
Txangoa doan da, bazkideek lehentasuna dute.

Noiz
Abenduak 23, arratsaldez.

Eman izena
Kukupraka Ludotekan, Areetan,
Eskoletako enparantzan.
Abenduaren 1, 8, 13, 18 (goizez) 10:00-12:00
Abenduaren 2, 9, 7, 14 (arratsaldez) 17:30-19:30
Informazio gehiagorako: 944 660 355



Iraganez doa denbora* beti / SARRI INGURUA, GETXO

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > bolue zubia



2008, Bolue (Getxo)

Testua: **Inazio Vidal**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Urte nahikoko gizona dugu gazte itxura duela, ateratzeko prest dago jada goizeko hamarrek direla. Paseatzera atera zaigu egun denetan bezela, bizpahiru ordu ibiltzen eman, zein ibilaldi itzela! Gero etxera bazkaltzera joan entsalada (e)ta okela, adin horrekin aizuz, nik ere bizi nahi nuke horrela!

2

Bolue aldeko paduran dabil natura artean barrena: errekatxo bat, ahate, dortokak... bertan ezer ez da pena; baina pausoak aurrera eman (e)ta agertu da problema, han aurkitu du bloke handi bat dena zapaltzen duena: gainean duen zubi handi horrek kendu du lehen zuen dena, zein polita zen lehen zena eta zein pena gaur egun dena.

3

Lehenengo garaitik gaur egunera nola pasatu du marra? Garai hartako natura eta oraingo paisaje txarra. Leku hon(e)tatik egina ditu paseoak barra-barra, eta guztien ondoren ziur hartu duela oharra: Leku hau dugu gure herrian "leku natural" bakarra, eta pena da hala (e)ta guztiz horrela egon beharra...

* Doinua: Albizturtikan Bidaniraino

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti! uk@aldizkaria.biz

komunikazioa > 10 urte egin ditu Goiena Komunikazio Taldeak



Azaroaren 11n ekitaldia egin zuten Arrasaten urteurrena ospatzeko. Argazkia: GOIENA

Goiena.net, Goiena Telebista, Goiena papera eta Arrasate Irratia ekoizten ditu Goiena Komunikazio Taldeak, eta 10 urte egin zituen ekainean. Gipuzkoako Debagoieneko euskarazko tokiko hedabideak "batzeko, kudeatzeko eta hedabide berriak bultzatzeko" sortu zuten. Egun ia 60 lagunek lan egiten du bertan, eta euskal kulturaren zein euskarazko tokiko informazioan erreferente bilakatu da. Sortu eta hamar urtera, Taldeko hedabide guztiek hartu eta erabiliko dute taldearen logo barria, orain arte erabilitako GOITB (telebista) edota Goienkaria bezalako markak alde batera utzita, izan ere, "Goiena marka bateratu nahi dugu, audientzia batzeko". Hori dela eta irudi korporatibo barria eta hedabide barrituak aurkeztu zituen azaroaren 11n, Arrasaten egindako ekitaldian; bertan omendu zituzten urte askoan Goienan musu truk lanean ibilitakoak ere. Interneten ikus dezakezu gune barritua: goiena.net. ○

bertsolaritza > bizkaiko finala izango da abenduaren 18an



Urbe Kostako hainbat bertsolarik aukera izan dezake finala jokatzeko

Getxoko hiru bertsolari ari dira jokatzeko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalaurreak: Jone Uria, Arrate Illaro eta Fredi Paia. Lehenengo biak kantatu dute dagoeneko, eta hirugarrenak, abenduaren 5ean egingo du, Gernikako Jai Alai pilotalekuan, 17:30etik aurrera. Beraz, saio hori amaitu arte itxaron beharko dugu finalera igarotzen diren ala ez jakiteko. Abenduaren 18an jokatu da finala Barakaldoko BEC-en. Txapelketa urriaren 10ean abiatu zuten eta eskualdeko zortzi bertsolarik parte hartu dute, aipatu hirurek eta Beñat Vidal, Itxaso Paia, Aitzol de Castro, Joanes Igeregi eta Peru Vidalek. 2008ko txapelketa Igor Elortzak irabazi zuen eta Unai Iturriaga lotu zen bigarren. Aurten, ordea, bietariko batek ere ez du parte hartu; beraz, emozio handia espero da finalean, edozer gerta liteke... ○

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...harria



...lehenengo garaiaik...



...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

kultura > Argentinan izan dira Getxoko Itxas Argia dantza taldekoak

Mar de Plata herriko Beti Alai dantza taldeko lagunakaz ibili dira getxotarrak

Azaroaren lehenengo astean bisitatu zuten Getxoko Itxas Argia Dantza Taldeko lagunek Argentinako Mar de Plata herria. Izan ere, Euskal Astea ospatu zuten egun horietan eta getxotzar dantzariak gonbidatu zituzten bertan eurekaz parte hartzera. Taldeko 41 kidek zeharkatu zuten Atlantikoa Argentinako txoko horretara iristeko, eta diotenez, *“benetan Euskal Herrian bezala sentitu”* ziren. Anfitrioi aritu zen bertako Beti Alai dantza taldea. Denak bat Euskal Elkarte kideak dira eta eurekaz egin zuten aste osoa, batetik bestera. Hunkituta itzuli dira getxotarrak etxera; izan ere, *“izugarria izan da ikustea Euskal Herria zelan maitatzen duten”*. Lehenengoz egon dira Itxas Argiakoak Argentinan, baina ez dute lehena izan Ameriketara; orain urte batzuk izan baitziren Uruguain. Europan ere ibili dira, Herbehereetan, Ingalaterran, Britainian, Grezian, e.a. Aurtengo ekainean Lituaniar dantzatu zuten. ○

sokatira > hirugarren lotu ziren goierritarrek munduko txapelketan

Etxeratutakoan taldeko argazkia egin zuten erandiotzarrek

Hego-Afrikan jokatu zuten Munduko Sokatira Txapelketa irailean, lurraren gaineko modalitatean. Besteak beste, Eskoziak, Alemania, Irlanda, Belgika, Suitza, Hego-Afrika edota Holandako taldeek parte hartu zuten, baita Euskal Herriko hainbatek ere, eta horien artean, Erandioko Goierrik. Sokatiran mailak daude modalitateko, sexuaren eta pisuaren arabera banatuta, eta goierritarrek, hirugarren postua lortu zuten gizonek 580 kilotan, eta argazkia egin zuten auzora bueltan auzotarrekaz, eta txapelketa bitartean atxilotutako auzokidea gogoan. Goiherri Kirol Elkarteak 1977an osatu zuten, eta sari asko lortu du ordutik. Bestalde, Hego-Afrikan maila misto barria estreinatu da, gizonek eta emakumeek osatutakoa, 600 kilokoa. Laukizko Gaztedi taldeak irabazi zuen. ○



“Kultur Etxetik urten orduko umeak zain daudenean duten ilusioa ikustea hunkigarria da”

Jon Moran “Txu” > Romoko Jaietako Zezensuzkoa

Eguraldia erakusten digu ez gaudela abuztuan eta Romoko Jaiak barrero heltzeko euri zaparrada eta astelehen ilun batzuk pasa behar dira oraindino. Hala ere, udako giroa gogora ekartzeko “jai-gizon” bat ekarri dugu 186 zenbakiko Erretatura. Txinpartak jaurtiz alde batetik bestera ibiltzen da Jon Moran gaztea urtean bitan zezensuzkoagaz. Romoko jaien antolakuntzan parte hartzen hasi zen orain hamar urte, baina 2007an hartu zuen lehenengoz egur eta metalezko zezen astuna lepoan. Istripuxo batek eroan zuen horretara: *“Jaien 40. urteurrena ospatu genuenean, maskota kanpandorretik behera bota genuen. Hori prestatzen geundela, batzordeko lagun batek min hartu zuen. Zezensuzkoaren arduraduna zen; arrasti horretan atera behar genuen eta berak ezin zuenez ni urten nintzen”*. Behar neketsua bada ere, umeen artean korrika hasteko momentua ilusioz betetzen du: *“Kultur Etxetik urten orduko umeak zain daudenean duten ilusioa ikustea hunkigarria da; berandu urtetan naizenean kexatzen zaizkit”*. Dagoeneko batzen hasi dira Jai Batzordeko kideak: *“Inailean hasten gara beharrez: jaien balorazioa, Olentzero, Koadrila Eguna e.a.”*. Zereginik ez zaie falta: *“Koadrilen laguntza barik jaiak ez lirateke bardinak izango; parte hartzera animatzen ditut”*. Gorputzak uzten dion bitartean, txinpartak botatzen jarraituko du Moran: *“Ezinezkoa da inor ez erretzea”*. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrek + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

AreetanVilla de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Erakusleihoak apaintzeko ordua

Erakusleio lehiaketak 20 urte bete dituela ospatzeko **opari gehiago eta hobeak** izango dira; **izena emateko epea hilaren 9a arte** egongo da zabalik

Abenduaren 9a arte egongo da zabalik Getxo Enpresa eta Merkataritza elkarteak antolatzen duen erakusleio lehiaketan izena emateko epea. Hogeigarren urteurrena ospatzeko, sari gehiago eta kategoria barriak izango ditu lehiaketak aurten. Saltokietako erakusleihoak saritzeaz gain, enpresen web guneak baloratuko dituzte. Irabazleen izenak abenduaren 20an jakinaraziko dituzte.



Joan den urtean 150 enpresak parte hartu zuen lehiaketan

Hogei urte betetzen ditu aurten Getxo Enpresa eta Merkataritza (GEEM) elkarteak erakusleio lehiaketa sortu zuenetik. Horregatik, 2010eko edizioan, barrikuntzak izango dira sarietan zein kategorietan. Joan den edizioan, 150 enpresak parte hartu zuen; aurten Getxoko ostalaritza, salerosketa eta zerbitzu enpresa guztiek izango dute parte hartzeko aukera, elkartearen barruan egon ala ez. Izena emateko epea abenduaren 9ko 12:00ak arte egongo da zabalik eta telefonoz, faxez, e-postaz edo elkarteke bulegora bertaratu egin ahal izango da.

Kategoria bitan banatu dute lehiaketa. Alde batetik, "Erakusleio fisikoa" izeneko kategorian, kanpotik ikus daitezkeen elementu guztiak baloratuko dituzte. Bestetik, "Erakusleio birtual" sailean, web orrien diseinua sarituko dute. Kategoria bietan parte har daiteke, gura izanez gero. Izena ematen dutenek, Bizkaiko Erakusleio Txapelketan ere

parte hartuko dute automatikoki, kontraktorik adierazten ez badute, behintzat.

Parte-hartzaileek, ez dute erakusleioa zein web gunea prest eduki behar abenduaren 10a arte; egun horretan hasiko baita epaimahaiaren beharra.

«17 sari banatuko dituzte: 12 sailkapen orokorrean, hiru sailkapen berezietan eta bi zozketatzeko.»

Dekorazioan, teknologia barrietan eta kontsumoan adituak diren hainbat lagunek eta Getxo Enpresa eta Merkataritza elkarteke zentzuzkoak osatuko dute epaimahaia.

GEEM-k, herriko enpresek Eguberrietan, euren irudia hobetzeko egiten duten ahalegina bereziki saritu gura du.

Horregatik, joan den urteko 13 sariez gain, beste bost emango ditu 2010eko edizioan: 12 sailkapen orokorrean, hiru sailkapen berezietan eta parte-hartzaile guztien artean zozketatuko diren beste sari bi. Barrikuntzen artean, hoberen apaindutako kaleari emandako saria egongo da. Horrez gain, mezu eraginkorrera eta erakusleio birtuala sarituko dira lehen aldiz. Bidaiak, Gabonetako otzarak eta erlojuak banatuko dituzte besteak beste. Sari banaketa Igeretxe Hotelean egongo da abenduaren 20an. ○

Izena emateko:

- Tf.: 94 430 55 00
- Fax: 94 430 55 01
- info@getxoempresariaycomercial.com
- Helbidea: Arene 22, Getxo

Areetako Geltoki plaza

hobetzeko lanak urtea amaitu arte luzatuko dira



Plaza eta ingurua hobetzeko lanak hasi dira daborduko

Asko eta asko izan dira, Romo eta Areetako geltokien artean, Geltoki plazan, dagoen aparkalekuaren egoeraz kexu diren auzokideak. Horregatik, datorren urtea amaitu artean luzatuko diren hobetze lanak hasi da Udala. Eusko Jaurlaritzaren birkalifikazio erabakiaren zain badaude ere, aparkalekua egokitzeko lanak hasi dira daborduko. Horrez gain, berdegune barriak, lotura barriak, umeentzako jolas-guneak, paseoak eta bidegorri gehiago egingo dituzte.

Aparkalekuak 2.405 metro koadro izango du; 106 partzela arrunt, elbarri-tuentzako lau partzela eta motorrentzako aparkalekua egokituko dituzte. Parkingak sarbide barria izango du, Romoko Kresaltsu kaletik.

Umeentzako 442 metro koadroko

jolas-gune iraunkorra egingo dute, Geltoki plazan dagoen ume-parketxo osatzeko; izan ere, kultur ekimenetarako karpa jartzen dutenean, kendu egiten dute plazako umeentzako parkea.

Komunikazioak hobetze aldera, Santa Eugenia eta Ibaigane kaleak lotuko dituen pasabidea zabalduko dute, "Metro" eraikinaren beheko aldean. Gainera, Romo eta Areeta osoan zehar bizikletaz ibiltzea ahalbidetuko duen bidegorriari, Ibaiganetik Ganetara joango den 380 metroko zatia gehituko diote.

Gunea edertzeko, guztira, 800 metro koadro izango duen berdegunea gehituko diote gaur egun dagoenari. Horrez gain, Geltoki plazara eta ondoko aparkalekura ematen duten etxe bietako fatxada itsuak apainduko dituzte. ○

ANTZOKIKO LANAK 3. FASEAN SARTU DIRA

Getxo Antzoki barria eraikitzeke proiektuaren 3. faseko lanak, lurpeko egitura eraikitzeke dagozkionak, azaroan hasi ziren. Zazpi hilabetez luzatuko dira eraikina altxatzeko lanak. Oinarritzako egiturako elementuak (auditorio bi, erabilera anitzeko guneak, bulegoak, aldagelak e.a.) sortzeaz gain, ikuskizunak muntatu eta kentzeko erabiliko den aparkalekua egingo da 3. fasean. Zazpi hilabeteak pasatutakoan, 4. faseari ekingo diote; azken horretan, itxiturak eta urbanizatzeko lanak sartuko dira. Aurreikusitakoa betez gero, Getxo Antzoki barriak eta Musika Eskola 2013an zabalduko ditu ateak.

LANGABETUENTZAKO IKASTAROAK ABENDUAN

Abenduaren 15a arte egongo da zabalik Enpresen administrazio kudeaketako laguntzaile eta sukalde-laguntzaile ikastaroetan izena emateko epea. Getxolan, *Getxo Lan In* egitasmoaren harira abiatu dituen ikastaroak dira eta udalerrian langabezia dauken pertsonen beharra topatzen laguntzea dute helburu. Lehen ikastaroa, enpresetan administrazio kudeaketan trebakuntza dutenei zuzenduta dago; bigarrena barriz, enplegua lortzeko zailtasunak dituzten eta ostalaritzan behar egiteko interesa dutenei. Sukalde laguntzaile ikastaroagaz lotuta, hitzaldi informatiboa eskainiko da abenduaren 14an Villamonten.

DESKONTUAK HIPIKAN GETXO KIROLAKEGAZ

Getxo Kirolakek eta La Galea Klub Hipikoa hitzarmena sinatu dute. Horri esker, udal erakundeke abonatuak %10eko deskontua izango dute La Galea martitzenetik barrikura antolatzen dituen eskoletan. Interesa duenak Getxo Kirolakeko bezeroen arretarako bulegoetan eman beharko du izena, nahiz eta klub hipikoa ordaindu beharko duten zerbitzua. Martiartu Golf Klubagaz eta Gueñeseko kart zirkuituagaz dituen hitzarmenei gehitzen zaio hau.

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Bagastikoetxe Industrialea
Etxalde 2 - Pabioi 11
48330 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144

http://www.etxeart.com

I love my work kolektiboa > Getxoarte 2010

“Lan sistemaren antolakuntza eta arte munduaren elitismoa salatu gura ditugu”



I love my work kolektiboko kideak

Gosariko kafea eta kroasana eskuan zutela, tabernako zerbitzariaren aldarre txarrari erreparatuta inspiratu ziren *I love my work* kolektiboko kideak. Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako hiru ikaslek sortu zuten artea eta aldarrikapena uztartzen dituen proiektua; hala ere, parte hartzeko eta gaur egungo egoera sozio-ekonomikoa, lan sistema edo artearen merkantilizazioa salatzeke prest dagoen orori zabalik dago kolektiboa, artista izan ala ez. Getxoarten agerpena egingo dute zeresana emango duen ekimen kritikoa eta apurtzaile batez.

—Nola sortu zen *I love my work*?

—Beasaineko taberna batean gosaltzen geundela, zerbitzariaren amantari erreparatu genion; “happy worker” eta “I love my work” esaldiak zituen idatzita. Zerbitzaria ez zegoen umore onez. Egoera barregarria iruditu zitzaigun; “happy worker” amantalean eta zerbitzaria aldarre txarrez. Egoerak inspiratu gintuen.

—Nola definituko zenuke zuen lana?

—Zaila da definitzea. Akzioak egiten ditugu batez ere; Langilearen Nazioarteko Egunean adibidez “I love my work” goi-

burua zuten pegatinak banatu genituen kalean eta jendea iritzia eskatu genion. Horrez gain, blogera bideoak eta bestelakoak igotzen ditugu. Lana da gure ekin-tzen ardatza; onerako zein txarrerako, baina jarrera kritikoa batez.

—Non egin dituzue ekimenak?

—IkasArt 2010 azokan egon ginen. Barzelonan “I love my work” goiburua zuten pegatinak zabaldu genituen hiltegi baten inguruan. Pegatinak banatzen ditugunean, leku esanguratsuetan pegatu eta argazkia bidaltzeko eskatzen dugu.

Jendearen parte hartzea bilatzen dugu. Bestalde, hamar metroko pankarta egin dugu; abandonatutako fabrikatan eseki eta argazkiak egiteko. Denetariko erantzunak jaso ditugu, baina inor ez da axolagabe gelditu.

—Zer mezu zabaldu gura duzue?

—Bi egoera kritikatu gura ditugu aldi berean. Alde batetik, gaur egungo lan munduaren antolakuntza; bestetik, arte munduan ematen diren “trapitxeoak”. Artea ez da herriarentzat egiten; elite bantentzako baizik. Guretzat artea ekintza soziala da. IkasArt-era adibidez, greban

«Arte azokak aurpegia garbitzeko besterik ez dira»

zeuden Customer Works enpresako langileen aldarrikapena eraman genuen.

—Zer egingo duzue Getxoarten?

—Oraindik ez dugu erabat zehaztu. Getxoarte ARCO bezalako azoka da, baina Bizkaia mailakoa. Azokek duten kutsu elitista kritikatu gura dugu; aurpegia garbitzeko erabiltzen duten erakuslehoia dira, gazteei aukerak ematen dizkigutela saltzeko. Errealitatean ez digute laguntzarik eskaintzen. Ideia ezberdinak ditugu, hori eta gure proiektuaren ildo den lan sistema salatzeke. IkasArt-eko dinamika-gaz jarraituko dugu; Bilbobuseko behar-ginakaz berba egin eta euren aldarrikapenak eroango ditugu Getxoartera. Leloak mihiseetan idazteko eskatuko diegu.

—Etorkizunera begira zein asmo duzue?

—Ideia egunero lantzen dugu. Aldarrikapenak espazio eta testuinguru ezberdinetara eroan daitezkeela ikusarazi gura dugu; lan prekarioa salatzeke adibidez, ez dira soilik manifestaldiak erabili behar. ○

Info+: ilovemyworkproject.blogspot.com

Artista gazteen txanda

Getxoartek artista gazteen 62 proposamen eroango ditu Areetara, 3tik 5era



Joan den edizioko proposamena

Kultur Etxeak Euskal Herriko arte plastiko eta ikus-entzunezko sorkuntza barria bultzatzea helburu duen Getxoarte Arte Sortu Berrien Aretoa antolatu du bederatzigarren urtez. Abenduaren 3tik 5era 62 artista gazteren proposamenak hartuko ditu Areetako Geltokia plazako karpak; gehienak Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako Fakultateko ikasleak edo ikasle ohiak izango dira. Lau egunez, pintura, eskultura, argazkia, bideoa, marrazkia, eta grabatuak ikusiko dira, beste gauza askoren artean.

Helburu bi bete gura dituzte Getxoarteko antolatzaileek: arte proposa-

men gazteak erakusteko plataforma sortzea eta lan horietan interesa duten pertsonak zuzeneko harremana erraztea.

Arte garaikidean adituak diren lagunek osatutako epaimahaiak, 147 proposamenetik aukeratu behar izan du aurretan. Karpan ikusiko diren 62 proposamenak, katalogo batean batuko dituzte; horretan, egindako lanez gain, artisten curriculumeko alderdirik garrantzitsuenak aipatuko dira.

Getxoartek, 11:00etatik, 14:00etara eta 17:00etatik 21:20era zabalduko dituzte ateak eta sarrera bi euroren truke eskuratu ahal izango da. ○

EUSKAL KULTURAREN JARDUNALDIAK ABENDUAREN 10A ARTE

Azaroan hasi ziren Euskal Kulturaren Jardunaldiak, baina oraindino badago zer egin. Hilaren 2an Euskara Saria emango dute lehen aldiz, Udaletxeko areto nagusian, 20:00etan. Hurrengo egunean, triki-kantu gosaria egingo dute goizez eta triki-kantu merienda arratsalde; biak Pipers tabernan izango dira. Egun berean, bertso poteoa egingo dute ALBEko lagunek. Abenduaren 4an, Gari abeslari ezagunaren kontzertua izango da 20:00 Andres Isasi Musika Eskolan (sarrerak 8 eurotan eskura daitezke BBK txarteldegietan eta Kultur Etxean). Amaitzeko, abenduaren 12an, ALBE gala egingo dute Algortako Kasinoan.

HITZALDIK ETA KALEJIRA GORRONDATXE ELKARTEAREN ESKUTIK

Gorrontatxe Kultur Elkarteak, jardunaldiak antolatu ditu Nafarroaren Egunean eta Euskararen Egunean harira. Azaroaren 30ean, Iñaki Sagredok, “El sistema defensivo navarro en Bizkaia” hitzaldia eskainiko du Aldai Patronatuan 19:30ean. Abenduaren 2an, leku eta ordu berean, “1512-2012 Nafarroa Bizirik herri ekimena, Konkistak 500 urte: deuseztatu ezin izan duten oroimena” ekimenaren aurkezpena egingo dute. Abenduaren 3rako, 20:30ean Algortako Geltokia plazan hasiko den jai prestatu dute; UKTEST taldearen txalaparta emanaldia, Gorrontatxe abesbatzaren kantaldi laburra eta kalejira egingo dituzte.

ROMOKO JAI BATZORDEA BEHARREAN BARRIZ ERE

Itzubaltzeta/Romo eta Pinuetako Jai Batzordeak hasiera eman dio 2010-2011 denboraldiari. Horretarako martitzenero, Santa Eugeniako Kultur Etxean biltzen hasi dira 20:00etan. Jaietz gain, Gura Dogulako Azoka, Olentzeroren etorrera eta beste hainbat ekimen antolatzen dituzte; horregatik, herritarrek, eta bereziki, gazte koadrilak bilerara joaten animatu gura dituzte.

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Danny Reus > Gospel Factory koruko zuzendaria

“Gure ikuskizunak ez ditu beldurtzen ikus-entzuleak, abesti asko ezagun dituzte eta”

Abenduaren 18an kantatuko du Gospel Factory taldeak Kultur Leioan. Gospel musika abesten du Madrilgo taldeak, baina izaera erlijiosoa gainditu eta bestelako musika estiloakaz nahasten dute, ikuskizun bizia eta dibertigarria eskainiz.

—Abenduan bisitatuko duzue Leioa, zer ikuskizun mota ekarriko duzue?

—Koru profesionala gara eta musika afroamerikarra egiten dugu, gospel eta haren eratorriak: soul, reggae, e.a. Baina oso arina da eta ikusentzuleek parte hartzen dute. Musika banda batek laguntzen digu zuzenean.

—Gospel abesten duzue, baina ez da ohiko gospel erlijiosoa, ezta?

—Ez, ez. Musika afro-amerikarra erabili dugu gure lana garatzeko estilo gisa. Baina egia esan, batzuetan abesten ditugu The Beatles, Bob Marley eta bestelako abestiak. Bertsioa egiten dugu gure estilokan, eta beraz, ikuskizunak ez ditu beldurtzen ikusentzuleak, abesti asko ezagun dituzte-eta.

—Zergatik gospela?

—Zuzendaria ni naiz eta gospela kantatu dut beti. Gure aitite apaiz afro-amerikarra zen eta elizan gospela abesten hazi naiz.



Euren musika entzuteko: www.myspace.com/gospelfactorymadrid

Espaniara bizitzera joatean, ez zegoen horrelako korurik eta beharra etorri zitzaidan zerbait sortzeko.

—Non hazi zinen, bada?

—Madrilen jaioa naiz, baina Miami hirian hazi naiz, Amerikako Estatu Batuetan.

—Eta nola sortu zenuten taldea?

—Duela zortzi urte lan egiten dut musika moderno eskola batean, hainbat genero lantzen dute eta gospel estiloa lantzeko

tailerra egitea proposatu zidaten. Esperientua izan zen, baina oso abeslari onak etorri zitzaizkigun eta tailerra gainditu zuen. Mundu osoko jendea daukagu eta nahiko gaztea. Oso prestatuta daude eta bakoitzak bere estiloa ekarri du taldera.

—Gainera, oso ondo ei doakizue.

—Oso pozik gaude, abeslari ezagunekin ere kolaboratu dugu. Gu entzutera datozenek ondo pasako dute. ○

Elexaldetik gora

Bulebarra eraikitzen hasi gura dute 2011n, etxebizitzak hasteko ez dago datarik



Elexalde eta Sarriena arteko bidea zabaldu gura dute, 35 metrora arte

Leioandiko eraldaketa abiatu gura du Udalak 2011 hasieran, Elexaldetik Sarriena doan errepidea zabalduz. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailak lanak esleitu ditu. Errepidea moldatu eta bulebar handia egin gura dute, 35 metro zabalekoa eta kilometro eta erdi luzekoa, “*Bilboko Gran Via kalea baino zabalagoa*”.

Noranzko bakoitzeko bide bana mantendu gura dute, eta aparkalekuak, oinezkoentzako gunak eta bidegorria gehitu. Gainera, tranbiarentzako bidea ere egin gura dute, 650 metro luzekoa. Lanok 3,3 milioi euro kostako dira.

Baina Leioandiko eraldaketa ez ei da mugatuko errepidea zabaltzera. Elexalde

erreka eta Irlandesas ikastetxearen artean 623 etxebizitza eta “parke publiko handia” eraiki gura dituzte, 205.000 metro koadroko lur eremuan. Gaur egun landak dira gehienak, eta soloak eta base-riak daude bertan.

Oraindino ez dago datarik bigarren lan hori hasteko. Eneko Arruabarrena Leioako alkateak jakinarazi duenez, datorren urtean izan liteke. Izan ere, udalak Eusko Jaurlaritzari lagako ei dizkio lurrok, eta ordainetan, babes ofizialeko 405 etxebizitza egingo ditu Jaurlaritzak, horietatik 101 alokairu sozialekoak (aipatu 623 horien barnean daude guztiak). Etxeak eraikitzeko 58 milioi euro gastatuko du Jaurlaritzak. ○

BEHARGINTZAREN IKASTARO BARRIAK

Urtariletik aurrera bederatzik ikastaro eskainiko du Leioako Behargintzak “herriko langabetuen lan merkaturatzea errazteko”. Langabetuentzako eta behin-behineko lana dutenentzako 200 plaza izango dira. Ondoko ikastaroak jorratuko dituzte: laguntza menpekotasuna, teknikari administraria, energia berriztagarriak, geriatriako laguntzailea, informatika on-line, orga elektrikoa/Biltegiko logistika, gaueko zaindariak/gau-jagoleak, ETEetan teknikaria eta informatikaren hastapena. Daborduko izena eman daiteke parte hartzeko.

UMORE AZOKAN IZENA EMAN DAITEKE

2011ko Umore Azokan parte hartzeko proposamen artistikoak onartzeko deialdia zabaldu du Udalak. Izena eman daiteke urtarilaren 11ra arte. Datorren urteko maiatzaren 12tik 15era izango da Umore Azoka. Deialdiaren baldintzen barri eta izena emateko fitxa topa daitezke Azokaren webgunean:

www.umoreazoka.org

GOSPEL FACTORY, 18AN KULTUR LEIOAN

Izaera erlijiosoa gainditu eta soul, R&B eta pop musikagaz bat egiten du Gospel Factory taldearen musikak eta “kontrastez, sorpresaz eta emozio ugariz, betetako ikuskizuna sortzen da”. Kultur Leioan eskainiko du ikuskizuna Madrilgo taldeak abenduaren 18an, 20:00etan. Sarrerak eros daitezke 10 euroren truke.

ANIMALATAS, 16TIK AURRERA IKUSGAI

Animalien 26 eskulturak osatzen dute *Animalatas* erakusketa. Frantziako Les Ateliers Art-Terre arte-tailerrean egin dituzte, birziklatutako edari-lataz. Kultur Leioako erakustaretoan ikusi ahalgo dira abenduaren 16tik urtarilaren 30era.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULUAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirutab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



Luberri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. 94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberri@euskalnet.net
www.luberri.biz

- Soropila ezartzea

Lurzonua presatzeko lanak, drainatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtziozko ongaitze lanak eta enila lanak.

- Soropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongaitzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrikatzea, soropil gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaizka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

[erandio]

Oier Kamiruaga > Motagane Txakolindegia

“Guruak esan badigu ondo egiten dugula, imajinatu, pozez errebenta beharrea gaude”

Bizkaiko Txakolinaren Tratu Profesionalari I. Ipar Kutxa Saria jaso barri du Goierriko Motagane Txakolindegia, barra tabernentzako mailan. Oier Kamiruaga tabernako nagusia pozez dago, ofizio baino afizio baitauka txakolina.

—Bizkaiko 16 tabernaren artean aukeratu zaituztete, zer saritu dute?

—Jatorrizko deiturak eta Ipar Kutxak sortu dute saria, Bizkaian txakolinari tratu ona ematen dieten upeltegiak bilatu dituzte, bai barran, bai mahaian. Barra mailan irabazi dugu. Begiratu dute zenbat txakolin desberdin daukagun, asko daude-eta; zelan zerbitzen den, baikoitza bere kopan desberdinduta, ondo hoztuta dauden, zerbitzariari galdetuta txakolinaz berba egin dezakeen, e.a. Profesionaltasun hori begiratu dute, ardoagaz bezala, baina txakolinagaz.

—Eta zergatik aukeratu zaituztete?

—Tabernagaz hasi ginenetik beti izan dugu hainbat txakolin. *Sumiller* ikasten ari naiz eta etxean beti egin dugu txakolina, mahastitik hasita. Mahatsa gustuko baduzu, osasunez heltzen bada eta bodegan egin beharreko guztia ulertzen baduzu, azkenean mundu bat da eta ni zaletua izan naiz beti. Aitak irakatsi



Interneten ere badauka gunea Motaganek: www.txakolimotagane.com

zidan, gustuko zuen, ostalaria naiz eta mundutik bueltaka ibili arren, beti izan dut argi zer gura nuen. Beraz, taberna zabaldu genuenetik beti izan ditugu bospasei txakolin desberdin.

—Zer da saria zuontzako?

—Guruak esan badigu ondo egiten dugula, imajinatu, pozez errebenta beharrea gaude. Orain arte ez da egon txapelketarik, eta guk ez dugu horregatik egin. Gaur egun merkatuan desberdindu behar duzu, gure aukera hori izan

da, afizioz egiten dugu, eta polito. Gainera, jendeak gustuko du.

—Beraz, hasieratik izan du bere lekua txakolinak.

—Bai, guk *slow food* filosofia jarraitzen dugu egiten dugun guztian, sukaldean ere bai. Goierriko baserriek erosten dizkiegu barazkiak eta lehengaiak, bertako produktua eskaintzeko. Bestela, kontzertuak ere antolatzen ditugu. Ondo doa, polito lotzen da, toki aproposa dugu. ○

Asuak uholderik ez

Ekaitzetarako **tankea** prest izango da martxoan, Asua **errekak gainezka egitea ekiditeko**



Asua-Lauroeta auzoa

Zangroiz industrialdearen inguruan Asua errekak gainezka egin dezan ekiditeko tankea ipintzeko lanean dabilta. Ekaitza edo euria dagoenean errekar 8.330 metro kubiko joan daitezten eragotziko du; deposito bik batuko dute euriaren ura. Obra Ur-partzuergoaren ardura da eta martxoan amaituko dute.

Errekak ez du beti gainezka egiten, baina bere ur-emariak herriko hoditeria hartzen du eta estolda-zuloetatik ateratzen ei da. Tankearen depositoei eragotziko dute euri-urra eta hondakin-urra nahas daitezten, euri handia dagoenean. Horrela ekidingo dute hobi-biltzaileak asebetetzea. Hortaz, uholderik ez da ger-

tatuko lurrazalean, kutxatiletatik ez delako aterako ur zikinik.

Behin ekaitza igarota, azpiegiturak tankearen deposituek batutako ura itzuliko du hobi-biltzaileetara, ondoren Galindoko araztegiaren tratua dezaten, Sestaon.

Ur-partzuergoak aurreikusi du urtean 15etik 30era aldiz erabiliko dutela azpiegitura. Bizkaiko saneamendu sarearen parte izango da.

Baina Erandion bestelako ekintzak garatu gura dituzte, herriko sarea guztiz isolatzeko. Zehazki, ixte-balbulak ipintzea pentsatzen dabilta Udala eta Ur-partzuergoa. ○

EUSKARAREN EGUNA OSPATZEKO IKUSKIZUNA

Demode Quartet ikuskizuna izango da abenduaren 2an, Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxeko Areto Nagusian, 20:00etan; izan ere, Euskararen Nazioarteko Eguna da abenduaren 3a. Lau gaztek osatzen dute Demode Quartet eta diziplina anitzeko ikuskizuna eskaintzen dute: kantua, dantza eta kanten artean sketch txikiak. Patxi Barcok zuzentzen du eta aktoreak dira Joli Pascualena, Mikel Espinal, Mikel de la Fuente eta Iker Huitzi. Ziurtatu dutenez, “umorez betetako musika ikuskizuna da eta taldea osatzen duten kideen muturreko izaerek harrituko gaituzte”. Sartzea doakoa izango da, eserleku danak bete arte.

BERTSO-JIRA XABI PAYA ETA AITOR SARRIEGIGAZ

Abenduaren 17an egingo du Bertso-Jira Berbots Erandion Euskaraz elkarteak, barikuan. Altagako La Plaza tabernan hasiko da 20:00etan. Bertsotan ibiliko dira Xabi Paya eta Aitor Sarriegi, eta Roberto Etxebarria eta Kepa Arrizabalaga trikitalariek lagunduko dituzte. Aukera polita izango da Gabonei ongi etorri esateko.

www.berbots.org

MUSIKA ESKOLAKO KONTZERTUAK

Gabonei begira daude Udal Musika Eskolako ikasleak eta hainbat kontzertu prestatu dute aurreko egunetarako, urtero legez, musika auzoz auzo erroteko. Abenduaren 16aren eta 22aren artean eskainiko dituzte emanaldiak. Erandiogoikoa bisitatuko dute lehenik, 16an; San Jose Egoitzan joko dute 17:30etik aurrera. Egun berean piano entzunaldia izango da Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean, 19:00etan. Hilaren 17an, Altagako San Agustin elizan izango da kontzertua, 20:00etan. Eta Astrabuduan bi egunez arituko dira musika ikasleak, 21ean eta 22an, Kultur Etxean eta 19:30etik aurrera.

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 905 430 53 42 / 907 852 917 • registrar@enakabret.net
Ibetsu kalea 1 • ALGORITA

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

IGOGAILUAK
ARLAN
ASCENSORES

Arazoei agur... Tf. 902 54 08 54

www.arlan.biz

EUSKARAREN EGUNA, OSPATU ETA MINTZATU

Euskararen Nazioarteko Eguna dugu abenduaren 3a, eta ospatzeko, ekimen ugari prestatu dute Sopelan. Abenduaren 1ean hasiko da *Mitologia tailerra III: Basajaun basoan jaun* ekimena Kurtzio Kultur Etxeko ludotekan. Abenduaren 3an, ipuin kontalaria izango da umeentzat Kurtzio Kultur Etxean, 17:30etik aurrera. Gazteek eta helduek, ostera, komeriaren klubagaz gozatuko dute, 19:00etan. Durangoko azokara txangoa izango da abenduaren 5ean, eta 18an amaituko dira ospakizunak Izarren Distira galagaz, Kurtzio Kultur Etxean, 19:00etan.

MARRAZ EGIZU OLENTZERO!

Olentzero marrazki lehiaketa antolatu du Olentzero Batzordeak beste behin ere, 8 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Saritutako marrazkia erabiliko dute Gabonetako postala egiteko eta Olentzero gaua iragartzeko. Beraz, gaia argia da: Olentzero Sopelan. Edozein teknika erabil daiteke, baina gutxienez DIN A4 tamainan egin behar da marrazkia. Kurtzio Kultur Etxean entregatu behar dira lanak abenduaren 3a baino lehen. Sariak abenduaren 24an bertan banatuko dituzte Udaletxeko plazan.

SOPELANA GARBIA BULTZATZEKO KANPAINA

“Garbi nahi zaitut” lelopean kanpaina abiatu du Udalak “udalerrian garbitasuna eta txakurrak dituzten pertsonen gizalegezko portaera sustatzeko”, azken urteotako informazio kanpainak jarraituz. Txakurren gorotzek eragindako arazoei buruz ohartarazi gura du Udalak: “Ez da garbitasun arazoa bakarrik, istripuak eragiten ditu, gaixotasunak transmititzen ditu, kaleen garbitzea zailtzen du eta azkenik, gure herriaren irudi txarra hedatzen du”. Horretarako, txakurra dutenen eskura ipini ditu gorotzak batzeko poltsa biodegradagarri eta konpostagarriak.

Zubitik olatuetarantz

Atxabiribil **hondartzara oinez** joateko zubia egingo dute eta **udarako** amaitu gura dute



Loiola-Ander Deuna errepidearen gainetik igaroko da zubia

Zaila da hondartzara oinez ailegatzea, kotxez gainezka dagoen errepide zabala igaro behar da. Arazoari urtenbidea eman guran zubia eraikiko dute oinezkoentzat Atxabiribil hondartzara joateko, Loiola-Ander Deuna errepidearen gainetik; Udalak espero du herritarrek eta bisitariak datorren udan erabili ahal izatea; obrak 600.000 euroko kostua izango du.

Baina zerbitzua eskaintzeaz gain, Sopelako ikur bihurtzea gura du Udalak: “Milaka bizkaitarrek ikusiko dute-eta”. Horregatik aukeratu ei dute

egitasmorik “originalena” ideia lehiaketara aurkeztutakoen artean.

Zubiak 140 metro luze izango da eta bost zutabek eutsiko dute, lurretik bost metro eta erdira; okertutako zutabeak izango dira eta pasabidea hartuko dute. Baina pasabidetik gora ere altxatuko dira, apainketa gisa. Barandako barrak egurrezkoak izango dira, zubiaren arintasuna gordetzeko.

Bidegorriaren jarraipena ere bertutuko ei du zubiak. Behin pasabidea igarota, bulebar barriagaz bat egingo du hondartzara bidean. ○

Ander Landeta > pilotaria

“Euskal arrantzaleen aztarnak jaso eta babestu dituzte Quebec-en”



Meñakako umeak entrenatzen ditu Landetak

Quebec-en eman du uda osoa Ander Landeta Kurene Taldeko pilotariak, bertako pilotariak eta Kanadako selekzioa entrenatu ditu, Trois Pistoles herriko Euskal Interpretazio Zentroan.

—Pilota entrenatzaile aritu zara Quebec-en.

—Trois Pistoles herrian dagoen Euskal Interpretazio Zentroan lan egin dut, bertako pilotalekuan entrenatu ditut umeak esku-pilotan. Gainera, urtero egiten dute euskal jai bat eta antolatzen ere ibili nintzen. Umeak, herrikoak eta ingurukoak entrenatu ditut, udaro liga jokatzeko dute-eta.

—Kanadako pilota selekzioa ere entrenatu zenuen, ezta?

—Bai, Kanadako helduen selekzioa prestatzen ahalegindu ginen, Paueko munduko txapelketan parte hartzeko; irailan izan zen hura.

—Arraroa da, zelan heldu zinen Quebec-era pilotariak entrenatzen?

—Interneten topatu nuen eskaintza eta ezin aproposago izan zen. Karrera amaitu barri nengoen eta frantsesa ikasi behar nuen, beren beregi behar nuena zen. Esperientzia oso ona izan da.

—Eta zer dela eta dago Euskal Interpretazio Zentro bat Quebec-en?

—Momentuz ez da Euskal Etxea, baina saiatuko dira. Zentroa ez dute sortu hara joandako euskaldunek, Ameriketako beste toki batzuetan gertatu legez. San Lorenzo ibai handia dago han eta baleak

«**Kanadako pilota selekzioa prestatu dugu munduko txapelketarako**»

zeuden antzina. Euskal arrantzaleak joaten ziren duela 400 urte. Hainbat hilabetez egon ohi ziren baleak arrantzatzen, baina ingelesen eta frantziarren arteko gerra hastean alde egin zuten, aztarna arkeologikoak utziz. Bertakoek euren historiaren parte gisa jaso eta babestea erabaki zuten. ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barnikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net



EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

GABONETAKO TXANGOETAN PARTE HARTZEKO, EMAN IZENA

Gabonak bertan dira eta daborduko azken tokiak betetzen ari dira kultur etxeek prestatutako urteetan parte hartzeko. Hiru txango egingo dituzte 14 eta 18 arteko laguntzat. Lehena abenduaren 28an izango da. Bilbora joango dira Arriaga antzokiko zirkua ikustera. Urte bamiaren ondoren, urtarrilaren 4an, Barakaldoko BEC aretoko Gabonetako Haur Parkera izango da txangoa, eta hiru egun beranduago, urtarrilaren 7an, izotzaren gainean patinatzea. Berangon erroldatuta dauden gazteek 6 euro ordaindu behar dute ekintza bakoitzeko, eta Berangon erroldatuta ez daudenek, 8 euro. Baina berangoztarrek izango dute lehentasuna, izan ere, toki mugatuak daude.

BERANGO ERAIKITZEN PLATAFORMAREN BIDEOA

Herri bat bagara...defenda dezagun! lelopean bideoa egin du Berango Eraikitzen Herri Plataformak, HAPO Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren asmoak salatze eta herriari hitza emateko eskatzeko. Euren iritziz, Berango "herri baserritarra eta industrialia izatetik lotarako herri erresidentziala izatera pasako da". Datozen 8 urteetan HAPOk 2321 etxe eraikitzea proposatzen duela salatu dute: "Horrek Berangoko biztanleria bikoiztea lekarko, naturala ez den populazio hazkundera bultzatuz eta hainbat auzo txikituz". Bideoa ikus daiteke interneteko ondoko gunean: berangoeraikitzen.blogspot.com.



Abant
 Psikopedagogia eta Eskola Orientazio
 Ikasleentzako zailtasunak
 (idazketa, inorkatze, sistema, datuak...)
 Haur Hizkuntza, Lehen Hizkuntza eta Bigarren Hizkuntza
 Baserrote 20 lanja. 48991 (Algorta-Getxo)
 Tf. 94 404 91 65 - 656 70 31 61

Neguan ere koloniak
 Gabonetako kolonietan parte har dezakete umeek Kultur Etxeetan, beste behin ere



5 eta 18 urte artean, denek daukate lekua Gabonetako jardueretan

Negua eta hotza ezin dira aitzakia izan etxean lotzeko. Are gutxiago umeak eta opor sasoiari badaude. Berangon badaukate aukera hainbat jardueratan parte hartzeko, Gabonetako kolonietan.

Abenduko oporretan izango dira ohiko legez, eta aurten, 27tik 30era, Gaztelekua izan ezik. Urtarrilaren 7ra arte luzatuko da hori eta 1993a eta 1997aren artean jaiotako gazteek parte har dezakete.

Ludotxiki Berangoeta Kultur Etxean egingo dute eta 2005 eta 2007 artean jaiotako umeentzat izango da. Ludoteka, barriz, Merana ikastetxean egingo dute, 2002 eta

2004 urte artean jaiotakoentzat. Eta Ludokluba Santa Ana Kultur Etxean izango da, 1998 eta 2001 artean jaiotakoentzat. Hauexetarako ordutegia 10:30etik 13:30era izango da hirurretan. Tailerrak, jolasak, futbolina, capoeira, antzerkia eta mozorroak egingo dituzte, besteak beste. Gaztelekua ere Santa Anan egingo dute, baina 16:00etatik 20:00etara.

Kolonietan parte hartzeko izena eman behar da azaroaren 29rako. Beraz, azkar ibili behar duzu, oraindino badago lekuren bat eta. Berangon erroldatuek 15 euro ordaindu behar dute, eta erroldatu gabeez, 30 euro. ○



AIXERROTA BHI
 - TEKNOLOGIKOA
 BAITXILERGOAK - NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
 - GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
 DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
 ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)
 INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / Tf. 94 491 17 84

Emmanuel Albarran > Gorliz Biker

“Produktu merkeak sortuz, edozein motorzaleren eskura jartzen ditut”



Emmanuel Albarran Gorliz biker tailerrean

Kilometro asko egin ditu Emmanuel Albarran gorliztarrak argazkiko motorragaz. Joan den uztaillean pauso bat harago joan eta zaletasuna ogibide bihurtu zuen, Sagastikoetxeko industrialdean Gorliz Biker tailerra zabalduz. Motorrak konpondu eta transformatzeaz gain, arropa marka propioa sortu du.

—Zergatik erabaki zenuen tailerra eta denda zabaltzea?

—Zalea izateaz gain, aurreko beharretan denda txikia neukan. Ekoizleak harremanetan jarri eta arropa inportatzen eta sortzen hastea erabaki nuen. Markak Gorbik du izena; produktu merkeak eskaintzen saiatzen naiz, edozeinek ekipamendu osoa izan ahal izateko: kordura eta larru prakak, jakak, ur trajeak, eskularruak e.a. Moto-kross-erako babesgarriak egiten hasiko naiz eta gazteren bat lagundu gura nuke.

—Zelan erantzun du jendeak?

—Oraindino denbora gutxi pasa da zabaldu genuenetik, baina espero dut erantzun ona jasotzea. Azken finean, prezioak ahalik eta merkeen jarri ditut edozeinen eskura egoteko. Uste dut denak izan behar duela salneurri egokia, bidezko merkatua bultzatu behar da.

«Dena salneurri egokian, bidezko merkatua bultzatuz»

—Motorzale mugimendu handia dago inguru honetan.

—Bai. Motorzale talde batzuk daude eta badago bere aldetik ibiltzen den jende asko ere. Taldeak elkarretaratzeak bultzatzen saiatzen dira, baina Udalek eta Erakunde Publikoek ez dituzte horrelako ekimenak gustuko; zarata handia sortzen dute euren gusturako. ○

Info+: info@gorlizbiker.com

OSABIDE HORTZ KLINIKA
 Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontia
- Periodontia
- PADI

Bilbarreri 27, behe erailea
 ALGORTA
 94 430 76 96

Terrera 2
 48960 ALGORTA
 94 491 12 71
iratsialgorta@gmail.com

irati
 OPARIAK MODA GAZTEA

OINUTSIK Kontsulta podologica
 Pielis Anabla B2ba, 054 lot. 62a

Zabigana 4 (Garaia salb. de zabaldu)
 Sepeliana 48400
 Tf. 94 404 74 37
 CTA PREVIA
oinutsik@oainutsik.net

GINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!

Zurikaldai

JOAN GARATE BAYO KIVETZ GARATE AZURMENDI
 Neguriko Etorbidea 2 Anguruen etorb. 4B
 T. 491 14 87 (Garaia, Jata Mendia) T. 490 01 87
 48990 NEGURI 48990 GETXO

Zure publizitatea hemen
 Zure publizitatea hemen
 Zure publizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

2.ESKUKO MENDI MATERIALA MATRAGOZ

Matrako Mendi Taldeak, 2. eskuko mendi material azoka antolatuko du Goñi Portalen abenduan beste behin ere. Kranpoiak, pioletak, eskularruak, eskiak, zirak zein beste edozein mendi material Plentziako Kultur Etxean utzi ahal izango da hilaren 13tik 16ra. Azoka 20tik 23ra egongo da zabalik, ondoren, 27tik 30era, saldu ez den materiala jasotzeko aukera egongo da.

UDAL IGERILEKUAK GORLIZTARRENTZAT

Gorlizko Udalak, 2011n igerilekuak eraikitzen hasteko asmoa duela aurreratu barri du. Futbol zelai zaharren lurretan, kanpingaren ondoan, egingo dituzte. Umeentzako zein nagusientzako igerilekuez gain, gimnasioa eta sauna izango ditu eraikinak. Lanak 2011n hasi gura dituzte eta udalaz kanpoko diru-laguntza eskatuko dute egitasmoa aurrera eroan ahal izateko. Dagoeneko lanak eta obraren zuzendaritza esleitzeko baldintza batzen dituen dokumentuak egin dituzte.

EROSKETETARAKO ORGATXOAK ZOZKETAN

Mankomunitateak, plastiko poltsak murrizteko kanpaina antolatu du bigarren urtez. Aurretik, oihalezko poltsa berrerabilgarriak banatzeaz gain, erosketetarako 600 orgatxo zozketatuko dituzte. Atxikitutako saltokiak kupoz bete beharreko kartoiak banatuko ditu, eta horiek Mankomunitateko bulegoan egongo den postontzian sartu beharko dira.

MANKOMUNITATEA

Egitarau aberatsa, Euskararen Eguna ospatzeko



Izarren Distira galan parte hartzeko kastingak egingo dituzte

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko da Euskal Herri osoan eta Mankomunitateak egitarau oparoa prestatu du horren arira. Alde batetik, Urdulizko Kultur Etxeak euskal mitologiaren inguruko erakusketa hartuko du abenduaren 12a arte; horregaz lotuta, mitologia tailerra egingo dute Lemoizko Kultur Etxean abenduaren 2an, 6-12 urte bitarteko umeentzat.

Bestalde, abenduaren 18an Sopelan egingo duten Izarren Distira galako artista

gazteak aukeratzeko, kastingak egingo dituzte: Gorlizen abenduaren 1ean (Ure zarantza pabiloian) eta 2an, Urdulizko Kultur Etxean.

3an egun handia ospatuko da herriz herri; Lemoizen DJak, puzgarriak, erromeria eta txokolate-jana egongo da 17:30ean hasita. Urdulizen barriz, ipuin kontalaria eta komeriaren kluba. Gorlizera, Asier Kidam magoa hurreratuko da, 18:30ean erakustaretoa. Plentzian euskal jolasen ikastaroa egingo dute. ○

Aza. 30 - Abe. 19

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

PLENTZIA

► **Matrako Mendi Taldearen urteko argazkiak.** Goñi Portalen. Abendu osoan.

URDULIZ

► **Mitologia erakusketaren aurkezpen antzeztua.** Kultur Etxean. Abenduaren 3an, 18:00etan.

GETXO

► **Senegal eta Etiopiari buruzko panelak.** Algortako Kultur Etxean. Abenduaren 9tik 18ra.

MUSIKA

GETXO

► **Brama.** Algortako Satistegi kafean. Abenduaren 2an, 20:00etan. Doan.

► **Bertso-poteoa.** Satistegi plazatik hasita. Abenduaren 3an, 19:00etan.

► **Sin Papeles.** Romoko Trokazulo tabernan. Abenduaren 9an, 20:00etan. Doan.

► **Tom Boyle.** Algortako The Piper's Irish Puben. Abenduaren 16an, 20:00etan. Doan.

ERANDIO

► **Organo kontzertu didaktikoa.** Erandiogoikoako elizan. Abenduaren 10ean, 20:00etan. Doan.

► **Bertso-Jira.** La Plaza tabernatik hasita. Abenduaren 17an, 20:00etan.

LEIOA

► **Leioako Gazte Orkestra.** Kultur Leioako Auditoriumen. Abenduaren 17an, 20:00etan. 3 euro.

► **Gospel factory.** Kultur Leioako Auditoriumen. Abenduaren 18an, 20:00etan. 10 euro.

► **Orpheo Ganbera Abesbatza eta Leioako Musika Banda.** Kultur Leioako Auditoriumen. Abenduaren 19an, 19:00etan. 3 euro.



Orain urtebete kaleratu zuen 16 lore azken diskoa Garik

► Musika

Gari zuzenean Areetan, 16 lore lanagaz

Areetako Andres Isasi Musika Eskolan kantatuko du Gari abeslariak abenduaren 4an, 20:00etan, eta 16 lore azken laneko kantuak aurkeztuko ditu. Kontzertua Euskararen Egunagaz lotuta dago eta Euskal Kulturaren Jardunaldien baitan antolatu du Udalak. Daborduko eros daitezke sarrerak 10 euroren truke. Kantariak duela urtebete kaleratu zuen 16 lore diskoa. Bere musika-ibilbideari errebasoa egin dio: Hertzainak taldearen eta bere ibilbide pertsonalaren bilduma egin du bergrabatutako 16 abestiotan. Beraz, kantu ezagunakaz barriro gozaraziko ditu uribe kostarren belarriak, oroitzenak ekarri barrenetik.

• **Non:** Andres Isasi Musika Eskolan • **Noiz:** Abenduak 4, 20:00etan

ZINEMA

LEIOA

► **Izarren argia.** Kultur Leioako Auditoriumen. Abenduaren 4tik 6ra, 20:00etan.

► **Midas erregearen altxorra.** Kultur Leioako Auditoriumen. Abenduaren 4an eta 5ean, 17:30ean.

GETXO

► **Marmaduke.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Abenduaren 12an, 17:00etan. 2,10 euro.

GORLIZ

► **Eñaut Gorbea ipuin kontalaria.** Ikastetxean. Abenduaren 18an, 18:30ean.

ANTZERKIA

SOPELANA

► **Ipuin kontaketa eta Komeriaren kluba.** Kultur Etxean. Abenduaren 3an, 17:30ean eta 19:00etan.

BERANGO

► **Bereber herriaren istorioak.** Berangoeta Kultur Etxean. Abenduaren 3an, 18:30ean. Doan.

GORLIZ

► **Asier Kidam magoa. Euskararen Eguna.** Erakustaretoa. Abenduaren 3an, 18:30ean.

ERANDIO

► **¡Gracias Grecia!** Altzagako azoka zaharrea. Abenduaren 5ean, 17:30ean. 3 euro.

► **Las rodillas de Conchita Herrero.** Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Abenduaren 11n, 19:30ean. 2 euro.

GETXO

► **Kontularien kluba.** Algortako Kultur Etxean. Abenduaren 10ean, 19:00etan. Doan.

LEIOA

► **Hamster.** Kultur Leioako Auditoriumen. Abenduaren 10ean, 20:30ean. 12 euro.

BESTEAK

BARRIKA

► **Irakurketa suspertzeko tailerra.** Liburutegian. Abenduaren 2an eta 16an, 18:30ean.

LEMOIZ

► **Euskararen Eguna: Puzgarriak, DJ, erromeria eta txokolate jana.** Armintzako pilotalekuan. Abenduaren 3an, 17:30etik aurrera.

PLENTZIA

► **Txipiroi Bowl.** Goñi Portalen. Abenduaren 18an.

SOPELANA

► **Izarren distira gala.** Kurtzio Kultur Etxean. Abenduaren 18an, 19:00etan.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 31
ALGORTA

[albuma]



Zemendia kulturala

Azaroagaz batera joan zaigu Tirante Plataformak Lutzanan antolatzen duen kultur ekimena. Antzerki estreinaldiak, kontzertuak... formatu txikian, lagunartean eta aurrekontu astronomiko barik, Lutzanako eskola zaharrari bizia ematen diote Tiranteko lagunek. Argazkiotan, aurten Erandiora hurreratu diren Errautsak antzezlanak, Las Fellini hirukotea eta La vie en 2 clown emanaldia ikus ditzakezu, besteak beste.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Kontuz trenagaz!

Euskal Herria kaletik Arene aldera

Ziur asko ez dituzu gogoratuko Euskal Herria kaletik Arene Azpira, Ikastola ingurura, jaisteko trenbidea zeharkatu behar zireneko garaiak. Amak etxetik urten orduko: *“Kontuz trenagaz, alde bietara begiratu pasa aurretik”*. Kartelak ere abisua ematen zuen. Hala ere, eguneko aldarreak eta pasio lagunaren elkarrizketarekiko interesak baldintzaten zuen algortarren arreta. Gaur egun, ez da trenbidea zeharkatu behar, eta laster, arrapalak jarriko dituzte bertan, Alango eta Arene Azpi lotuz. Hala ere, trenbidea edo, hobe esanda, “barrerak”, herriko banaketa psikologiko-sozialaren elementu erabakigarria dira oraindino ere algortar askorentzat.

[berbetan]

Acerotarrak eta surfa askatu ezineko korapiloa da; oraingoan gazteenaren haritik tiratzea izan da UK-ren asmoa. Maiatz-urri bitartean bost kontinenteetan barna eta bost olatu mendean hartu gurean ibili den Kepa Aceroren (Algorta, 1980) bizipenak batu ditugu hainbat orritan. Surfa, bidaia, abentura, kanpokoen eta barruaren ezagutza... Azken batean, bizitzaz jardun du algotarrak, edota bizitza begiratzeko, ikusteko, dastatzeko, bizitza bizitzeko moduez. Afrika, Asia, Australia, Amerika eta Europan barrena bizitako esperientzia, *5 waves 5 continents* ekimena, sareko bere egunerokoan kontatu du. Bideo eta idatzi horiek ezagutzeko: www.fivewavessurf.com

Kepa Acero

surfa, bidaia, abentura... bizitza!

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zelan prestatu duzu nongo-zein olatu aukeratu, baliabide, laguntzak lortzea...?
—Urte askoan parte hartu dut txapelketetan, leku askotara joaten ginen, baina beti pentsatzen nuen mugatuta geundela, hondartza batera, hotel batean sartuta egotera; nahiz eta mundu osoan ibili ez genuela ezagutzen herria, han zer zegoen. Ideia horretatik bururatu zitzaidan hau egitea: bidaia, lurretik, bakarrik... Surfak beti izan duen abentura puntu horregaz, niretzat galduta zegoena. Mundu mailako olatuak aukeratu nituen, baina masifikatuta ez daudenak; beno, Mundaka adibidez, mundu mailakoa da eta mundu guztiak daki non dagoen, erraza da hara heltzea. Baina, bestelakoak gura nituen, esploratzera, horiek aurkitzera joan...

—Txapelketak, lehia, bazterrean uzteko erabakia atzera ezina da?

—Txapelketak gustatzen zaizkit, jarraitzen ditut; baditut horietan dabilizan lagun asko... Ni beste alde batetik joan naiz, erabakia hartuta dago; 4 bat urte daroat hortik kanpo. Surfeko txapelketek irizpide batzuk dituzte, eta horietara mol-

datu behar dugu, horien arabera surf egin. 4 urte daroat irizpide barik surf egiten, barriro dinamika horretan sartzea ezinezkoa da, gainera gogorik ere ez dut!
—Eta bizi daiteke surfetik txapelketen zirkuitutik kanpo ibilita?

—Urte hauetan horrela bizi izan naiz. Orain (diru)laguntza bila nabil, baina horretaz bizi izan gara. Egia da, krisia asko nabaritu dela surfean. Baina proiektuak berdina izaten jarraitzen du, babesle, laguntzaile, marken publizitatea egiten ba-

dugu, beraiei berdin zaie alde batetik edo bestetik egiten diegun. Horrela bizi gara, bizi ahal gara; free surfer (surflari askea) deritzo. Ez da hain ezaguna, orain indar nahiko hartzen ari da, horixe bilatzen du: lehengo surfaren izpiritua berreskuratzea, bidaiak ez izatea bakarrik surfaren inguruak baizik eta bidean aurkitutako jende eta kulturei buruzkoak ere.

—5 olatu, 5 kontinente bakarka egitekoa zela diozu. Beraz, badu norbanakoaren barruko ezagutze gura hori...

—“Intimoa” izatea gura nuen. Lana da, nire lana, baina proiektu pertsonala ere bai, baita ametsa ere. Intimoa izateko, niretzat bakarrik bidaiatzea oso garrantzitsua da, ez bakarrik neure barruan sartzeko, gainerako jendeagaz harremanetan hasteko ere; erraztasun askoz handiagoa eskaintzen dizu, bakarrik noalako eta nahitaez neure burua behartzen dut beste

“Txapelketetan sentitzen nuen mugatuta geundela; 4 urte daroat irizpide barik surf egiten...”

guztiakaz harremanak izaten, uste dut askoz ere irekiagoa naizela.

—Kontinentez kontinente, olatuz olatu. lehenengoa: Namibia (Afrika).

—Bidaiaren zatirik biziena izan da; barkatasuna, basamortua... eta herrietan jende asko ezagutu nuelako. Gogorrena joan aurretik izan zen: banuen beldur hori, “nora ete noa...”. Olatua non zegoen



banekien, baina inguruetan zer egon zitekeen ez. Bizipen oso bizia izan da bakarrik egotearena han, basamortuan, ezer mugitzen ez den leku horretan, itsasoaz gainera, azken batean, bakarrik neure burua izatea mugitzen dena, eta horretaz konturatzera... Horrelako leku batean gure bizitza gelditzen dela dirudi, gogoeta egiten dut aurretik gertatuko guztiagaz. Horrek aurrera begiratzeko ere balio izan dit. Bestalde, ezagututako jendeak-eta, pentsatzeko modu guztiz ezberdina dauka, gitxigaz bizi dira, oso gitxigaz, eta pozik bizi ere! Ikasi dut gure gizartean sortzen ditugun beharizan batzuk ez direla benetan ezinbestekoak, geuk sortu ditugula baino! Hona itzuli eta gauzak xumetasunez, apaltasunez ikusten ditut.

—**Hurrengo geldiuena, Java Uharte (Indonesia). “Gaixo”, larri ibili zinen, ezta?**
—Lehenengo gauza base-kanpamentua bilatzea izan zen, hartu gura nuen olatua bi uharte oso handiren artean sortzen delako. Olatua sortzeko itsaso handia behar da, oso gitxitan gertatzen dena, eta horren zain egoteko kanpamentua. Anaiak hemendik mezua bidaltzen zizkidan jakin ahal izateko noiz helduko zen halako itsasoa! Kotxea hartu, portu batera heldu, arrantzaleakaz batu eta haraino eroateko prezioa negoziatu... Uharte natura-erreserba handia da, beraz olatua hartzeko, haraino bakarrik joan behar nuen, beno arrantzaleakaz... Estrategia osoa eratu behar izan nuen, dena nahiko primitibo! Ezagututakoei dagokienez, Namibiatik eta Indonesiatik atera dudana ondorioa nahiko antzekoa izan da: zelan bizi den jendea gitxigaz, zelan besterik ez duten ezagutzen eta hala ere pozik bizi direla! Ez daukate hainbeste informaziorik, ez dakite zer den kontsumoa. Gaixotzearena (barre salatariagaz). Lehenengo esan, han malaria oso hedatuta dagoela. Motorrez joan nintzen inguruko olatu batera, hantxe arrantzale bi bakarrik bizi ziren etxetxo batean. Eta tabakoa emon zidaten, beno nik tabakoa zela pentsatzen nuena; perretxikoak

edo ei ziren. Erre eta momentuan konturatu nintzen ez zela tabakoa! Ilargirainoko saltoa emon zuen nire buruak! Hurrengo 5 egunak han eman nituen, inkomunikaturik, txarto. Ajea baino ez zen izan, baina apur bat izutu nintzen, ez nekielako zer gertatzen zitzaidan, malaria izan zitekeelako. Ez dago ezer ere, oiha sakona da. Nire bila etortzeko hitzartutako motorra

“Lehenengo surfaren izpiritua berreskuratu; bidaiak ez izatea bakarrik surfari buruzkoak, bideko jende-kulturenak ere”

handik 5 egunera etortzekoa zen, komunikatu ezinik... Azkenean, hori izan zen guztia, kontatzeko hango batailatxoa!
—**Jarraian Australiara saltoa.**
—Australiak zelanbait bidaiari zati bitan banatu zuen. Namibia eta Indonesia ostean, aireportura heldu eta: kaleak, argiak, dendak, barriro; 3 hileren ostean, alajainkoko! Horregatik izan daiteke gitxien gustatu zitzaidana, xarma hori galtzen duelako, badirudi horrezkero ez nembilela bidaiatzen. Bidaiari esperientzia oso... arimaren esperientzia da; eta niretzat, han ez zegoen bidaiarik. Halere, desertura joan, 4 aste han pasa, surflari komunitate txiki batean, kanpadendetan, jendea ezagutzen, arrantzan, olatuaren zain. Ez zen heldu, baina esperientzia polita izan zen: egunero arrantzara eta olatuaz berbetan... Aukera-

“Gura nuke jendeari transmititu guretzat surfa mundua ikusteko modu bat dela, sozializatzeko giltza ere...”

tutakoetatik olaturik gogorra zen, urduritasun hori sentitu nuen: alde batetik helarria gura nuen, eta aldi berean ez...
—**Heldu ez diren olatuakaz zer asmo?**
—Aitzakia ona barriro bueltatzeko! Baina, beste proiektu bat darabil buruan orain...
—**Gero itzuliko gara horretara; baina, bidaiari aurrera ginez, hurrena, Txile.**

—Txile, barriro bidaiari sartzera izan zen. Aireportutik, kotxez, base-kanpamentua eratzeraz; 5 taula eta 5 kamera neramatzan, orduan leku guztietan gauzak uzteko leku bat behar nuen, hortik erraztasunez mugitzeko, taula 2 eta beharrezkoenagaz. Kotxe txikia bidean apurtu zitzaidan, gaueko ordu batean, bakarrik, bidean botata lotu nintzen. Asko dago kontatzeko! Orain

atzeratu begiratu eta, esperientzia horiek dira azkenean irakasgaia, horietatik ikasi dut gehien! Neure buruari esatea: honek gertatu behar zuen, lasai, urtengo naiz, ez da ezer gertatzen. Azkenean horiek dira esperientzia aberasgarriak, uste dut gogorrenak direla aberasgarriak. Olatua oso ona izan zen! 5 egun emon nituen han; eta azken finean, hori izan zen saria! Esfortzu guztiaren ostean, han bakarrik, neure pentsamenduak, paisaia itzelean...
—**Eta bidaiaren azkenekoa.**
—Mundaka! Agian ez dauka kontu erromantiko hori, ez noa galduta dagoen olatu baten bila, ondo ezaguna da, munduko olaturik onenetarikoa dela denek dakite... Baina, omenalditxoa egin gura nion, hor ibili naizelako bizitza osoan, hor pasatu dituzalako momentu onenak familiagaz,

zer-zelan?”. Batzuetan, azalpenetan ez galtearren, ez zegoelako azaltzeko modurik ia, arrantzan nindoala esaten nien. “Ni honetaz bizi naiz”, “bizi!!! Baina, zelan!?!?”. Ez dute ulertzen, “zelan ematen du dirua horrek! Ez baduzu arrantzarik egiten! Ez baduzu orturik!”. Kontraste handia da, martetarra nintzen! Baina, hona itzultzean, sentsazio bera izan nuen, hemen ere

“Agian, Mundakak ez dauka kontu erromantiko hori... ondo ezaguna da, baina omenalditxoa egin gura nion”

martetar! Gero gizartean sartzera gara barriro. Baina, han jendea oso irekia da. Oraindino mendebaldebartuta ez dauden lekuetan, “ezezagunak” direnatan, jendeak jakin-mina du, irekia da, oso-oso abegitsuak. Izpitu hori...! Eta bakarrik pentsatu beharra bihar nora goazen... Itzela da!
—**Aipatutakoetatik gogokoena?**
—Indonesiakoa, agian jendea gehien erakarri duena; haraino joan, natura-erreserba, bakarrik egon irla hartan... Bidaiaren zera hori islatzen du. Arriskua ere badauka, korala dagoelako, ebakiak egin eta zer edo zer gertatuz gero, bada...
—**Eta Uribe Kostako bat aukeran...**
—Surflariok gara, zelan esan, oso egois-

tak, ez ditugu gogoko lekuak esaten. Perretxikoak hartzen dituztenak legez!
—**Askok jarraitu zaitu blogetik, bideo asko eseki duzu. Ikus-entzunezkoakaz jarduteko asmorik daukazu?**
—Hau guztia bat-bateko hutsa izan da! Autodidakta naiz, nire kontutxoak egiten ditut nire modura. Gura nuke, hau ondo urten denez, hurrengo urtean ere ideia

berdintsuagaz jarraitu. Bai, oso gogoko dut bideoak egitea, eta idaztea... Jendeari transmititzea surfari buruzko beste ikuspuntu bat; jendeak badaukalako topiko hori, pijoak garena, txapelketek dirutza ematen dutela... Gura nuke ikustea guretzat surfa mundua ikusteko modu bat dela, eta sozializatzeko giltza bat izan daitekeela. Hala ikusten dut nik surfa, eta hori transmititu gura nuke.
—**Halere, pentsa liteke: beste filosofia bat izan arren, nondik atera du dirua hori egiteko?**
—Nire lana da, hortik ateratzen dut dirua. Pribilegiatua sentitzen naiz lan egiten dudalako gogoko dudanean. Jende askok

daroa horrelako bizitza, ateratzen duen dirua bidaiatzeko eta zelanbait modu nomadan bizitzeko darabilena; ez da pijoan kontua! Momentua bizi dute, momentuan bizi dira; bidaiatzen, lanean irabazten duten dirua bere modura gastatzen. Gaurko gizartean, jendeak hainbesteko dirua gastatzea kotxe batean ulertzen du, “irabazitako dirua horretan gastatzea ondo”. Bestela, bidaietan eta... gastatzea ez du ulertzen, “horiek pijoan kontuak”. Arimari kontraesan bai, ondo; oster, ez...?!
—**Itasoruntz. Prozesuaren alde, busti zaitetz!** ekimenean (Ibaizabal Uribe Kosta eta Ezkerraldea batuz, surflariak sustatutako elkarriketaren aldeko giza-katea) parte hartu barri duzu, zelan joan zen?
—Asko gustatu zitzaidan, batez ere olatuak hartzen ez dituztenak uretara sartzera eta han egotea; jo ta ke, korrontearen aurka!
—**Ez zen izan hondartza lasaia, itsasadarreko ur ez hain garbietan baino.**
—Horregatik ere polita! Batzuk traje barik, korronte handiaren aurka... itzela! Nahaste-borraste apur bat, baina baldintzak ez zirelako batera onak, marea jaisten... Marea goian eta behean dagoenean itsasoa geldi dago; marea erdian, ez! Neuretzat ere gogorra izan zen! Halere, itxuroso lotu zen; uste dut mezua helarazi zela, nahiz eta katea agian bidetik apurtuta egon! ○

Hiru anaia surflarietan txikiaren abentura eta kalentura barriak

—**Hiru anaian txikiaren. Hirurak surflariak. Aita kexatu izan da etxean 500 ohola baino gehiago dituzuela...**
—Aita eta ama beti izan dira... gu honetaz bizitzeko euren laguntza...! Iker eta Eneko Australiara joan ziren 13 eta 11 urte zituztela; orain Australiara 11 urtegeaz joatea abentura da, baina orduan jendeak ez zuen ezta bidaiatzen ere! Ez zen lelakeria! Euren ausardia, bizitza ikusteko modu irekia gako izan dira gu honetaz bizi ahal izateko. Aita, beti, ur-ertzean grabatzen... Dagoeneko ohitu dira. Han, Namibian, bakarrik, desertuan nengoela jakindua ere, ez dira ezta ia beldurtu! Ohitu dira gure erokeria hau errespetatzera!

—**Eta anaiek zer emon, zer kendu dizute?**
—Surfean inertziak hasi nintzen. Algortan mugimendu guztia hasi zen boom guztia. Haien surf egiten hasi ziren... Nik 8 urte nituen... Gauzak txikiak gelditzen zitzaizkionean, niri heltzen zitzaizkidan... Inertziak... Nik ez nuen galdetu ere egin, baneuzkan taula eta trajea jarraian... Dena zor diet, influentzia guztia, surfa, olatuak, bizitza... Kendu? Beno, azkenean, txikia nintzenez, niretzat ziren errieta guztiak, eta horrek bizitza moldatzen dizu! Kendu didate, baina asko eman. Beti “Kepa izan da, Kepa izan da...”,

baina horretaz ere ikasi dut, hortik neure burua zelan atera ere ikasi dut!
—**Egitasmo barria ere baduzu, ezta?**
—Gura nuke dokumental bat egin, ondo, bidaiari honetatik ekarritakoagaz eta hurrengotik ekarriko dudana. Eta horrela bizitzen jarraitu... Hurrengo egitasmoa maiatzerako abiatzea espero dut; oraindino laguntzak eskatu, bildu, behar ditut. Berezitasuna da ez dakidala zelako olatuak dauden, lekuak baino ez ditut aukeratu, esploratu barik daudenak, jendeari otu ez zaizkionak; hotz handia egiten duen lekuak direla baino ez dut esango. Agian mundu mailako olaturen bat aurkituko dut, agian ezer ere ez...



info+: www.fivewavessurf.com

Surf begietatik bizitakoa

Surfa eta bidaia... Bidaia eta surfa... bizitzea...

Kepa Acero surflari algortarrak Namibia, Indonesia, Australia, Amerika eta Europan zehar (Euskal Herrian, hain zuzen) mundu mailako olatu ez hain ezagunen bila egindako ia urte erdiko ibilaldi-bidearen irudiok dituzu ondokoak.

Batzuentzako erosoegia, pribilegiatuegia... agian;
besteentzako benetakoa, erromantikoa, sakona... agian;

Surfetik munduari begiratzeko modu bat, surfetik mundua bizitzeko modu bat.

Argazkiak: **Kepa Acero**











BETIKO

IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Leioako ikastolen Elkartearen ikastola bakarra.



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaituz
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO




GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Eguzki Bideoak barriak

Urtean zehar kaleratutako **dokumentalak** eta egokitzen barria **Durangon**



Plotogoff. Harriak fusilen aurka filmaren kartela

Durango Azokak liburu eta disko azpititulua daroa bere goiburuari estu lotuta ("euskal" ere bai, baina horren esanguren inguruko eztabaida alde batera utzita), baina bere erakus-mahaietan garaiek eta bestelakoek ekarritako barrikuntzek gero eta leku handiagoa hartzen dutela begibistakoa da. Oraingoan ikusentzunezko sorkuntzari begira ipinita, hurrengo abenduaren 4tik 8ra egingo den Azoka ofizialean zein inguruko beste azokaren eskaintzan zehazki Eguzki Bideoak-ek helaraziko duen lanen aukera egongo da.

Iruñeko taldeak badaroa urte nahikotxo bere bidea egiten, lantzen, sortzen zein interesgarri deritzon beste herrialde eta egoeren gaineko ekoizpenak gure artean banatzen. 1994an sortutako taldeak 2006an erronka eta egiteko barriak ipini zizkion bere buruari, eta oraintsu abiatu du bere web gunea, bide barrien gaineko eztabaidetatik sortuko dena eta jorratuko dutena. Ostera, Eguzki Bideoak-ekoek zer barri duten plazaratzea da

hemen asmoa. Hala, abendurako prest izango dute *Plogoff. Harriak fusilen aurka* (*Plogoff, des pierres contre des fusils*; Nicole eta Felix Le Garrec) dokumentala. 1980an kaleratutako lanak Britainiako Plogoff herrian eraiki asmo zuten zentral nuklearraren kontrako altxamendua irudikatzen du: tira-bira, borroka gogorrak 45 egunez, poliziek herria setiatuta... eta

«Plogoff. Harriak fusilen aurka 80. hamarkadako lana azpitilua euskaraz atondu ditu»

zelan lortu zuten Frantziako Gobernuak egitekoa bertan behera uztea. Orain kolektibo iruindarrak azpititulua euskara, gaztelera eta ingelesez kaleratu du. Gainera, aurton atondutako *Anarquismo revolucionario en Euskadi (1870-1936)* eta *Bartolo* dokumentalak ere eskainiko ditu Eguzki Bideoak-ek, euren katalogoaren zerrenda luzea osatzen duten beste lan interesgarri askoren artean. ○

info+: www.eguzkibideoak.info

Eder Dominguez > Draa taldeko baxu jolea

“Villa-ko kontzertua askoren azkenekoa izan beharrean, izan dadila askoren lehenengoa”



The Sentinel (Erandio) eta Munich (Santurtzi) tabernetan jotzeko asmoa dute laister. info+: www.myspace.com/draametal Harremanetarako: 652 744 993

Draa orain 4 urte osatu zuten David Tamayo (gitarra), Eder Dominguez (baxua), Josu Rodriguez (gitarra), Iker Perez (bateria), Iker Lanz (ahotsa) eta Eduardo Gomezek (teklatura). 4 algortar, erromoztar bat eta leioztar batek osatzen duen taldeak ingelesez abesten du, baina ez dute baztertzen euskarazkoren bat sortzea, abian baitute.

—**Metala da zuen musika, baina...**
—Denek gustuko luketen zerbait egiten saiatzen gara, gerta daiteke inork ez izatea gogoko... Power metala da, progresibo kutsua badu, baina ez lar nabarmena; power

metal, heavy metal, metal alemaniarra...
—**Martxoan 4 kantuko demoa atera duzue**
—Hasieran ateratako gai jakin bateko abesti sailetik 2 grabatu ditugu orain. Gaia epikoa da, guk asmatutako istorio baten ingurukoa: Draa izeneko planetaren istorioa. Ziklo hori alde batera utzi dugu, ez itxi. Beste 2 kantuek beste gai batzuk dituzte, adib: zelan ikus zituzketen historiaurreko otsoek munduaz jabetzen zihozaren gizakiak, ordu arte ehiztari bakarrak izandako otso horien ikuspuntua, alegia; eta mitologia grekoaren ingurukoa, Minotaurora e.a. Orain

kanta barriak sortzen eta genituenak lantzen gabiltza. Beste 4-5 prestatzean maketa osatuko dugu; osatu, ez barriro grabatu, kalitate oso onekoa delako, maketa baino 4 kantuko diskoa da. Ez gara epeak ezartzearen zale, azkarrarazten zaituzte... gure erritmoa goaz; eroso sentitzean ipiniko gara grabatzen; urtebeteko epean edo egongo da. —Draa, Sahara basamortuko duna erral-

«Power metala; alegiazko Draa planeta, historiaurreko otsoak, Minotaurora...»

doien izena ere bada.

—Bai. Hizkien loturak sortzen duen irudiari polita deritzogu, estetikoki. Esangurari ere bai, gure istorioko alegiazko planeta duna handiez osatuta legoke. Eta nik geologia ikasi nuen, polita iruditu zitzaidan, beraz...
—**Zelan joan zen Bilbao Hiria lehiaketa?**
—Oso gustura sentitu ginen. Zuzenekoa prestatzea guretzat erronka zen, oso gitxi egin ditugulako. Kontuan hartuta Villa-n jotzea zuzeneko garrantzitsua dela eta talde gehienak kontzertu askoren ostean heltzen direla bertara, eta gu oholza gitxitugaz gindoazela, eskaintakoagaz pozik! Lehiatzearena, dagoen maila altuagaz, beste kontu bat da... Kontzertuak eskaintzen hasi gura dugu orain, Villa-koa askoren azkena izan beharrean, izan dadila askoren lehenena. ○

diskoak

Ren Fan
Ama Say
Boniberenea



Urtuellako taldea barriro sartu da estudioara 16 urteren ostean, *Ren Fan* disko barria grabatzeko. Orain urte bi itzuli ziren taula gainera eta orain disko batean jaso dituzte 12 kanta barri. Joan mende akabuan eman zuen zer esan eta musikari askoren erreferente bihurtu ziren Ama Sayren abestiak. Indarbarriturik datoz orain.

Gau hotzengan ere
Olatz Zugasti
Elkar



Zortzi urteren isilunetik urten da harpista hernaniarra. Lan berezia da *Gau hotzengan ere*, Zugastik "bere barnemundu emankorra eta fantastikoa ez ezik, folkloro esentzialaren bestelako ikuspegia" ere baitakar. Mixel Ducau musikariaren laguntzaile eta Mikel F. Krutzaga grabazio eta soinu arduradun izan ditu.

Gargantuan Melee
Atom Rhumba
Serrano ekolozpenak



"Universal amaTOUR" -eko azken kontzertua izan zen Atom Rhumba taldearen osaketarik iraunkorrenaren agurra. Ibilbide barri honetan, Joseba Irazoki gitarrista gisa sartu da eta Iñigo Cabezafuego baxua jotzera pasa da. Kontzertuan etenaldia egin zuten, baina ez dira geldirik egon. *Gargantuan Melee* lana kaleratu dute orain.



Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Tellebeke 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Amezketarraren itzaletik

“Fikziozko pernandokeriak” baino historiako **Fernandoren egiak**

Ba ete da Amezketako bertsolari, plazagizon, ateraldi umoretsuko, argi, erantzun azkarreko, burutsua, zirikatzaile, batzuetan amarrutsu, pikaro... hartaz txintik entzun ez duen euskaldunik? Hainbatek, 90. hamarkada erdialdean haur ziren askok, ETBko marrazki bizidunen bidez ezagutu zituen noizbait izan zen haren bizipenak, *pernandokeriak*.

“Pernando” Amezketarrari gertakari umoretsu, ziniko eta buruazkarreko andana egotzi edo erantsi zaizkio, edozein herri istorioren edo kondairaren protagonista izateko pertsonaia egokitzen jota, herri heroi bihurtzeraino. Halakoetan, zelanbaiteko fikziozko irudia eraiki ohi da

«Fernando eta bere garaiko Amezketan hainbat datu baieztatu ditu Oterminek»

historiako pertsonaren inguruan, eta “ei” edo “omen” larregiz betetzen bere biografia, izan ete zen ere zalantzan ipiniz. Horiek danak argitzeko eta datuak baieztatze asmoz, besteak beste, Gipuzkoako Artxibo Orokorra eta Donostiako Elizbarrutiko Artxiboa arakatuta, egiazko hainbat informaziogaz *Fernando eta bere garaiko Amezketan* liburua osatu du Jose Mari Otermin kazetari eta idazle amez-



Liburuaren azaleko ilustrazioa

ketarrak. Apirilean Amezketako Udalak argitaratu zuen lanak jasotzen duenez, Oterminen arabera, Fernando Bengoetxea Altuna (Amezketan 1764-1823) bertsolari izan zen, ona gainera, epaimahaikide ere izandakoa; pobrea, baina ez bizizalea edo arlotea (110 buruko artaldea izan zuen); Larrantza Haundi, Asentzinea Haundi eta gaurko Intxausti base-rietan bizi izan zen, maizter; meategiko langile, gero artzain; herrian egon arren ez zen eskolara joan, ez zekien idazten; berbarako abila zen, ateraldi burutsu eta umoretsukoa... “Pernandoren” egia gehiago gura dituenak badaki nora jo. ○

liburuak



Fucking artist
Xabier Montoia
Elkar

Ohikoa duen begirada zorrotzaz eta idazkera doiaz kontatutako istorio independentienak batu ditu oraingoan Montoia. Langabezia geratu den bikotearen istorioa, Uzbekistango kontzentrazio esparruaren egunerokoa... gozotik baino gehiago garratzetik dute ipuinek.



Munduko sukaldaritza...
Batzuk
Tartalo

Hamaika herrialdeetako sukaldaritza, prestigiozko hamaika jatetxe ezagunien esker. Alemania, Maroko, Mexiko, Argentina, Britainia, Txina, Vietnam, eta beste hainbat herrialdeetako zaporeak dastatzeko aukera, etxetik mugitu barik. Etxeko sukaldetik mundu zabalera.

[kirola]

Euskal Makila Jokoa (I)

Azaroan antolatutako **ikastaroa otsailean errepikatze** asmoa dute



Fadurako kiroldegian eskainitako ikastaroaren irudia. Harremanetarako: joseignacio.gamboa@ehu.es

Euskal tradizioan makilak izandako garrantzia ez da izan edozelakoa, horren adierazgarri dira berbarako, bere erabilera zenbait dantzatan gorde izana edota, zer esanik ez, euskal aginte makilak gaur arte zelanbait mantendu duen esangura. Horrez gainera, nahiko ezezaguna bada ere, *“orain dela ehun urte makila borrokarako erabiltzen zuen jende askok, oso zabaldua zegoen”*, adierazi du Oiartzungo Makila Jokoa elkartearen kide Iñaki Ganboak. Sizilian makila borroka bat egiten zuten lagun batzuek aurkitu eta haiek esan zieten oinarria Euskal Herrian zuela. Ezpal txiki horretatik abiatuta liburu zaharretan, *“ondo bilatu behar dugu, nolabaiteko herri xumearen kultura zelako eta historia liburuetan ez direlako horiek argi eta garbi jasotzen...”*, eta hari eta honi galdezka... batetik, makila borroka inguruan informazioa batzen hasi ziren (liburuak kaleratzea espero dute urte hasieran), eta bestetik, zelan erabiltzen zen, teknika, ikertzen eta ikasten, *“lagun bi aurkitu ditugu teknikak gorde dituztenak, bata edadetua, bestea gazteagoa, guk horietako batengandik jaso dugu”*. Orain dakitena era-

kusten ere dihardute. Hala, Getxoko Fadurako kiroldegian izan ziren azaro erdialdean algortar lagun batzuen ekimenez antolatutako ikastaroa eskaintzen. Dozenatik gora lagunek parte hartu zuen eta otsailean barriro antolatzeko asmoa dute.

Ganboaren esanetan makila borroka erabileraren *“galtze hori XX. mende hasierakoa da, hor hasi zen beherakada handiko garaia. Lehen jendeak normalizat jotzen*

«Datuak liburura batu eta urte hasieran kaleratzeko asmoa dute»

zuen makila borrokarako erabiltzea, ez dakit mundu guztiak erabiltzen zekienik, baina erabiltzen zuten norbait guztiak ezagutzen zutela bai. Nik dakidala behintzat ia lurralde guztietara zabaldua zegoen; Araba kenduta, hor ez dut hainbeste arakatu baina erreferentziarik ez dut aurkitu”.

Bizkaian batutako datu, makila mota eta abarren informazioa hurrengo zenbakian irakurri ahalko duzu. Halere, “norbaitek informaziorik balu eurei helaraztea” eskertuko luketeela jakinarazi dute. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA KIROL MODA




350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / Tf. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 KASURU 18 - ALGORTA

Maitane Muñoz Iturria > Urtxintxa eskolako Kulturartekotasun arloko kidea

“Jarrera arrazistak daude gazteen artean, gaia lantzeko prebentzioa da bidea”

Gira Bira, munduari begira liburua egin du Urtxintxa eskolako kulturartekotasuna lantzeko. Durangoko Liburu eta Disko Azokan eros ahalko da, abenduaren lehen aste akabuan.

—Zer da *Gira bira, munduari begira*?

—Kulturartekotasuna lantzeko material pedagogikoa da, liburu bat. Bertan agertzen dira 12 herrialdeetako ipuinak, taillerak, errezetak eta jolasak. Euskal Herrian dagoen aniztasuna, immigrazioa eta ijitoak kontuan hartuta aukeratu ditugu herrialdeak.

—Zer topatuko dugu liburuan?

—Urtxintxa eskolan urteak daroagu kulturartekotasuna lantzen. Lehen argitalpen bat kaleratu genuen orain bost urte, *Munduan jolasean*, bertan aukeratu genituen bost kontinenteetako jolasak eta taillerak. Baina zerbait gehiago behar da gaur egun, jendartea aldatu da eta guk ere ikasi dugu. Aniztasuna badago gure herrietan eta hirietan baina ez dago harremanik, ez ditugu beste kulturak ezagutzen eta aurreiritziak, estereotipoak eta jarrera arrazista eta xenofoboak topatzen dira gazteen artean. Gai hori landu behar da eta prebentzioa da bidea, Lehen Hezkuntzako umeakaz lan egin behar da. Eguneroko jardueren bidez lan egingo dugu, eta jolasak, taillerak edota errezen bidez, beste kulturak hurbilduko ditugu.

—Baina folklorea alboratu duzue, ezta?

—Normalean gai hau lantzean, beti nahasten dira kultura eta folklorea: jantzi tradizionalak eta musika lantzen dira, adibidez. Baina horrela estereotipoak indartzen dira eta ez da benetan lantzen kulturartekotasuna. Liburu honetan eskainiko



Liburuaren koordinatzaileak: Maitane Muñoz (argzk.), Oiakue Azpiri, Ixone Garai eta Ander Ramos

ditugu umeentzako erakargarri diren gauzak. Izan ere, ume bati berdin dio Kolonbian zer jantzi tradizional jantzen duten, baina interesatzen zaio zertan jolasten diren, edo zer jaten duten. Beraz, horiek landuko ditugu liburuan. Esan bezala, 12 herrialde agertzen da: Brasil, Senegal, Kolonbia, Bolivia, Sahara,

edozein eremutan erabilgarri izateko. Liburuaren hasieran, ume bakoitzak kontatzen du bere historia: nor den, zer duen gustuko, nagusitan zer izan gura duen, familia beste herrialde batean daukala eta non azaltzen du, edota hementxo dela eta bere familia guztia hementxo dagoela; aukera desberdinak daude. Bere

“Kulturartekotasuna lantzean kultura eta folklorea nahastu ohi dira; umeen intereseko gaiak landuko ditugu guk”

Maroko, Euskal Herria, besteak beste.

—Eta non lekukotzen dira istorioak?

—Euskal herritxo batean, zehaztu bakoia. Horrela, edozein euskal herri edo hiritan koka liteke liburua. Horrela, lantzen duten toki bakoitzean lekukotu ahal dira istorioak, hezitzaile bakoitzak bere herria erabil dezan eredu bezala,

familiak hementxo zer ogibide duen ere kontatzen du.

—Non erabil daiteke?

—Zabala da, astialdi mugimenduan errazago izan liteke, hezitzaileek eguneroko garatzen dituztelako horrelako ekintzak, baina eskolan erabiltzeko ere oso egokia da, familian, ludotekan, e.a. ○

Fredi Paia

Partere

Gure eskualdeko herri guztietan egon izan da sikiera mediku bat XX. mendean. Baina umeak ekarteko, auzo guztietan egoten izan dan esperientziadun andra zaharren bateri deituten izan deusie. *Partere* esaten deusie gure zaharrek. Seinak ekarten lagunduten eben, eurek eroaten ebezan umeak bataiora eleizako ateraino (ez dot kasu bakar bat bere batu eleiza barrura heltzen ziranik), eurek jantzen ebezan hildakoak andetan eroan aurretik, Lemoizen hildakoa eleizara eroaten eban segizioan kurtzearen aurretik joaten ziran, otzara bete hilogi besotan hartuta, inguruko bedarrak inork baino hobeto ezagutzen ebezan eta izakera magikodun gatxen konponbideen jakitun ziran. Horrez ganera, auzoko batzarrak eurengana jotzen izan dau arazo berezien konponbide bila. Gure lekuko gehienek *erdi-sorginek* zirala esan deuskue. Baleitike arrazoia eukitea.

Sano ezagun eta errespetatuak izan dira *parterek* gure herrietan. Horreen artean bat aitatu beharko bagendu Juana Urebarriko barrikoztarra zana aitatu geunke. Juana Urebarriko Barrikako Goierrikoa zan. Berangora ezkonduko bere loba batek esan eustan legez, *gure amama sorgine zan*. Eta honaino helduta, Erdi Aroan horrenbeste errepresio eragin eban berba horren atzean zer dagoan ikusi dagigun. Izan bere, aitatu dogun moduan, parterak sano ugariak izan dira herri guztietan. Eta ez soilik Uribe Kostan, Euskal Herri osoan baizen. Orduan, lehenengo galdera bat egin behar deutsegu gure buruari, zelan izan leiteke horren lanbide ohiko eta zaharrentzat euskerazko berbarik ez egotea? Iparraldeko herri batzuetan *emagina* esaten deusie. Baina ia gure geografia osoan ez dago partera esateko berbarik: partere, parterea, parterie, parteria...



Barrikako Goierri dago Juana Urebarrikoaren etxea

esaten da Euskal Herri luze zabalean. Barandiaranek partera esateko salbuespen bat dakar: *sorzain* berbea. Ikusi hutsean

izan eitekean beraz. Baina beste aditu batzuek, ene ustez zuzen, erantzun eben moduan: latinetik datorren eta gaztelaniaz suerte forma hartzen dauan berbak, euskeraz badauka bere adinakoa, eta hori *zorte* da. Beraz, ezinezkoa da sorgin hitzaren lehen zatia zorte berba izatea, Mitxelenak azalduko euskeraren fonetika historikoren arabera *zorte+gin-en* baturak ez daualako sorgin emoten. Baina bigarren aukera bat badago, *sor* hori *sortu* aditzaren erroa izatea (*Sorzainen* legez?). Sortu jaioren sinonimoa da euskeraz, horretan ez dago zalantzarik. Ondorioz *sor+gin* jaiotzea egiten dauana, sorrarazten dauana edo gure zaharrek dinoen moduan, *partere* litzateke. Erdi Aroan, baina, berba anatemizatu zan, egun terrorista izatearen antzeko *zeozer* bihurtu zan. Eta noski, erderazko berbea hartu gendun orain hamarkada gitxira arte bizirik mantendu dan lanbidea eukanari esateko. Behin hau jakinda, berbetan hasi gintekez *partere*, barkatu, sorginen ganean. ○

«Sano ezagun eta errespetatuak izan dira parterek gure herrietan»

sorgin berbatik parajekoa emoten dau. Baina zer esan gura dau *sorgin* berbak? Emagin berbagaz atzizkia konpartiduten dau, *-gin*, egile esan gura dauana eta lanbide askotan aurkitzen dana euskeraz: okin (*ogi+gin*), hormagin (*horma+gin*), zurgin (*zur+gin*). Beraz, sorgin (*sor+gin*) banatu geinke. Lehenengo zatiaren esanguraren ganean eztabaida egon zan XX. mendean. Batzuek frantziar edo okzitaniar hizkuntzatik hartutako gaztelarazko *suerte* berbaren adinakoagaz lotu eben. Zorte egilea, edo patua zein adurragaz olgetan ebana

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.

 <p>portu zaharra bar</p> <p>Portu Zaharra kalea 35 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia) Tel. 94 460 20 33 portuzaharra@portuzaharra.com www.portuzaharra.com</p>	 <p>SOLAETXE</p> <p>Eguneko menua Jatetxea Karta Asteburuko menua Oilasko erreteria</p> <p>Sarricea sarrice 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tel. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restauratesolaetxe.com</p>
---	--



La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezzi

Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



UK Taberna

Mariandresena 1, Algorta

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[gaurko aukera]

Dena prest, on egin!

Hilaren 18 eta 19an, pintxo lehiaketa



2009ko edizioan, Jolastoki Jatetxeak irabazi zuen epaimahaiaren saria

Aurreko zenbakian aurreratu bezala, abenduaren 18an eta 19an ospatuko da Getxon, GetxOnegin pintxo lehiaketaren bigarren edizioa. Euskara Zerbitzuak antolatutako ekimenak, tabernariak eta bezeroak euskaraz bustitzea du helburu.

Aurten ere, zonalde bitan banatuko dira ibilbideak; alde batetik, Algorta eta Andra Maritik joango den ibilbidea eta, bestetik, Areeta eta Romo lotuko dituen. Izena ematen duten tabernekin pintxo bana aurkeztuko dute eta lehiaketako egun bietan euro batean salduko diete eskatzen duten lagunei. Hiru sari irabazi ahal izango dituzte parte-hartzaileek: epaimahaiarena, herritarrena eta hizkuntza-paisaia txukunenari saria. Bigarreneko, bezeroek pintxoak 1etik 10era baloratzeko txarteltxoak izango di-

tuzte jatetxe eta tabernetan. Puntuazioa emateaz gain, pintxoei berba gozoak botatzeko aukera egongo da. Boto-txartel guztien artean, sari bi zozketatuko dituzte: lagun birentzako afaria Basalbo jatetxean eta Eusko Labeldun produktuen otzara.

Hizkuntza paisaia euskalduntzeko, kartelak, manteltxoak eta bestelako materiala banatuko zaie tabernariei, euskara entzuteaz gain, ikusteko aukera ere eman dezaten.

Lehiaketak irauten duen egun bietan, trikitilariak, soinulariak eta euskal tresnen fanfarrea tabernaz taberna ibiliko da. Horiekaz batera, aktore bi jendeari lehiaketaren barri emateaz arduratuko dira. Giroa eta zapore gozoak ez dira faltako. Tabernari; pintxo bi, mesedez! o

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI

ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alungobarrí 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



ARTAZA ETXEA
JATETXEA

- gosariak
- txuletoia • bakailoa
- arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Euzkara, Gobeia erailgoren sarreran • LEIOA



BASTARTEA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Ardiase z/g. • T.E.A Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO


María Jesús
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangoberri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA **HARTU TXANDA**

GOIZEAN
"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez penisa"
Prentsa - Fruitu lehenak - Aldizkariak - Litsarrak
Ordutia Mendatea 1 Telefono 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

KOSKA
irratia 108 fm

[horoskopoa]

<p>URA </p> <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Hainbeste solomo jateak kalte egingo dizu azkenean. Beti barazkiak jatea agian nekagarria izango da, baina bilatu sabela betetzeko beste zer edo zer, topatuko duzu eta.</p>	<p>OTSOA </p> <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Ilargi betearen eraginez pertsona bihurtuko zara, eta pertsona moduan, dana apurte eta kakaiztuko duzu. Lasai egon, zurea gau bateko kontua baino ez da, beste batzuen ordea...</p>	<p>ADARRA </p> <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Adarra jotzen ala? Zorioneko aroa biziko duzu, lanean lasai, dena kontrolpean; lagunak ezin pozago; maitasunean ere nagusi; eta dirua nahikoa... Zer, adarra jotzen ala?</p>
<p>AITZURRA </p> <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Arxila, murxila! Bat-batean desagertzen zara, parrandan urtetean, lagunak berbetan zaudenean, beti. Nora joango ote zara? Bigarren bizitza misteriozua daroazu ala?</p>	<p>HOSTOA </p> <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Labain egingo duzu txakur kaka. Txakurrari ostiko bat emon eta jabeari muturrean ederto igurtziko zenioke kaka. Zer zabilta? Trankil egon, kaka zapaltzek zoria egi dakar.</p>	<p>EGUZKIA </p> <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Durangora joango zara liburu azokara, baina ezagun batzuek topo egin eta poteoan hasiko zara. Parranda itzela, baina esku hutsik itzuliko zara. Eta biharamunean... barriro Durangora! dakar.</p>
<p>GARIA </p> <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Ez zaitzez kasinora joan, pilotan apustu egin edota loterian jokatu, hau ez da eta zure astea! Baina badakizu, jokoan zoribakoa dena, maitasunean ere bai; Euskal Herrian bizi gara eta!</p>	<p>LASTOA </p> <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Zu bai ikasle fina! Abendua hasi barri eta dagoeneko otsailko azterketak prestatzen. Zer gertatu zaizu? Hara! Liburutegira doan baten bat duzu begiko, ezta?</p>	<p>IRATZEA </p> <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Jupiter eta Saturno lerrotatu dira zure horoskopogaz. Horrek esan gura du zorrea ez dela egongo zure alde. Ez zaitzez saiatu aldatzen, badakizu-eta izarrek diotena erabat ziurra dela.</p>
<p>META </p> <p>(Irailak 17 urriak 16) Euria, txingorra eta haizea... eta zu etxean sartuta, goibel eta zure buruari pena emoten? Jantzi katiuskak eta zoaz putzuetan salto egitera! Hori bai terapia ederra!</p>	<p>HAZIA </p> <p>(Urriak 17 azaroak 15) Irratiko lehiaketa batean tokatu zaizkizu kontzertu baterako sarrerak, baina ez daukazu lagunik joateko. Lasai, sal ditzakezu, beti egongo da diru mordoan ordainduko duen tentelen bat...</p>	<p>NEGUA </p> <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Zorionak mundura etorri zaizun loretoagatik! Guraso izatea zaila da, baina gogoz ekinez gero, dana ondo joango da. Umeen irriak txoko guztietara iristen dira...</p>



NORA EUSKAL HERRIA


Bideak zabalduko dizkigu gure lurraldeak miatzeko eta ezagutzeko.

Eskuratu KIOSKOAN:
Hilabetero 2,5€ ordainduta
BERRIA egunkariarekin batera

ETXEAN:
Harpidedun eginda, hilabetero etxean urtean 24€ ordainduta.
Kioskoan baina %20 merkeago.

Harpidetza egiteko:
TELEFONUZ: 943 30 35 54
POSTA ELEKTRONIKUZ: harpidetza@nora.aldizkaria.info
WEBGUNEAZ: www.nora-aldizkaria.info

HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuma

1. Alde edo leku garaiak. 2. Zuberoako herria, Basabürüan. Ipar Euskal Herrian, libre, aske. 3. Uranioaren ikur kimikoa. Ezko. 4. Kaltzio oxidoa. Asiako aintzira handia. 5. Eskainiak. Errepikatuz, gorotza. 6. Begira. Eguzki sistemako bigarren planetarik handiena. 7. Adarrez joka. Bilo. 8. Nasa, moila. Aramaioko elizatea. 9. Nafarroa Beherako xarbaria. 10. Maskor kiri-bila duen soinbera.

Goitik behera

1. Pluralean, almidoi eta abarren azukrea. Boroaren ikur kimikoa. 2. Otx!! Zigoitiko kontzejua. 3. Donostiako auzoa. Aiako seme edo alaba. 4. Nire familiako, nire arteko. Baldintzetan. 5. Bostehun, erromatarren arabera. Egungoak. 6. Ipar Euskal Herrian, talde. Araizko lekua. 7. Giza arrazako banako. Eguzki. 8. Haran, bailara. Gaizto, doilor. 9. Ebaki luze eta sakona egin, arrailatu. 10. Lepoko. Bokal errepikatua.

Soluzioa

V	U	L	I	U	K	V	A	R	B
V	Z	K	L	V	B	K			
		L	E	O	L	I	V	K	
E	L	I	L	E					
V	Z	I	T	V	A	O	S		
V	A	K	U	T	P	O			
L	V	A	V	A	R	E	K		
I	R	I	Z	I	A	R	U		
O	B	R	L	I	G	L	I		
K	A	I	G	I	A	G	A		

ez hain gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Erandion azaroan izan den zein ekimen ekarri dugu 186. zenbakiko Albumera?

> Aurrekoaren erantzuna: Daniel Landart

> Irabazlea: **Amaia Uriarte***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Zein ur-kiroletan aritzen da Kepa Acero getxoztarra?

- **Ur-eskia**
- **Igeriketa**
- **Surfa**

> Aurrekoaren erantzuna: Berdea

> Irabazlea: **Ez dago irabazlerik***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA **NORA**

bilabetekariaren sei bilabeteke harpidetza doan



SARIA

"zinema etxean haurrentzako DVD filmen laugarren bilduma"



Bidalari erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



KEPA CASTRILLOK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Leioako Alzaga Ikastola, 1979

Leioako hezkuntza prozesuan, 1969-70 ikasturtea izan zen abiapuntua. Orduan egin zen guraso talde baten lehenengo bilera eta bertan izan ziren, beste batzuen artean, Eusebio Gaubeka, Joseba Elordui, Benito Gil, Antolin Ramon, Jose Luis Perello, Koldo Azkue, Iñaki San Juan, Juan Antonio Aresti eta Andoni Arteaga. Elizak utzitako lokaletan hasi zen Elexalde Ikastola 17 ikaslegaz. 1972ko irailaren 15ean bat egin zuen Alzaga Ikastolagaz, azken horren izena hartuz. Argazkikoak (9-10 urtekoak) OHOk laugarren mailakoak dira (Leioa, Bilbo, Deustu, Erandio eta Algortakoak). Urtero batzen dira azaroaren lehenengo zapatuan Kurtze-Beko jatetxean elkarregaz bazkaltzeko. Bertara joan ohi da Koldo irakaslea, baita ikasleakaz 8. mailan praktketan aritutako Nekane Madariaga ere. o

1. Ierroa: Koldo Barrenetxea (irakaslea), Jone Zarraga, Amaia Ramon, Aitor Bilbao, Ainhoa Esnal, Amaia Diaz, Josu Ibarondo, Iratxe Aurrekoetxea, Iñigo Badiola, Iñaki Incera eta Miren Terese Bilbatua.

2. Ierroa: Koldo Gangoiti, Josune Fernandez, Kepa Castrillo, Alvaro Espina, Koldo Olamendi, Espe Rodriguez, Jontxu Villanueva, Iñaki Esnal eta Marta Sedano.

3. Ierroa: Lurdes Altuna, Amaia Markaida, Xabier Lekube, Oihane Azurmendi, Edurne Intzaurre, Monike Garcia, Asier Fullaondo, Aitor Bilbao, Jose Angel Iribar, Asier Jimenez eta Patxo Zubiaur.


4. Ierroa: Zigor Arteaga, Gotzon Bilbao, Gaizka Uriarte, Cesar Labarga, Gorka Basañez, Iñaki Abarrategi, Joseba Pedrera, Haritz Montreal eta Mikel Iriondo.

[aitormenak]

ANJE DUHALDE > musikaria

“Musika kentzen badidazu, arnasa zati handi bat ere kentzen didazu”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Argazkia: **Asier Mentxaka**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Normala, naturala naiz. Jendearekin harreman zuzena gustuko dut. Hastapenean herabetsua naiz, baina denborarekin gaintitzen da hori.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Clint Eastwood aktore eta zuzendaria gustuko dut. Bere ibilbidea ez da konbentzionala, *western* filmekin hasi baina demostratu du film oso onak egiten dakiela.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Bi aukera daude, aberatsa izanez gero ezer ez nuke egingo. Baina naizen modukoa naizenez, ezin horrela izan. Dena den, musika kentzen badidazu, arnasa zati handi bat ere kentzen didazu.

Txikitan zer izan gura zenuen?

Gauza asko, baina laster batean, 14 urterekin edo sartu zitzaidan musikarako gogo, inguruak horretarako lagundu ez arren.

Aitor dezakezun bizio bat?

Naturari lotuak diren aisialdiak gustuko ditut, naturatik eta jendetik hurbil egotea, ondo jatea gustuko dut, edatea eta lagunekin egotea. Azken finean, gorroto dudak bakarra lana izango da.

Zein da zure ametsetako bat?

Oraingo, kantu on bat egitea.

Eguna ala gaua?

Gaba esnatuen zalea naiz eta goiz lotiena. Gabaz hobeto sentitzen naiz, beharbada ofizioarengatik.

Parrandarik politenak non?

Nik gustuko dut lagunartean egotea, baina lagunarte mugatuan. Georges Brassens kantariak zioenez, “*lau arteko lagunartea ondo dago, hortik gora zalaparta da*”.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Asko dira, baina beharbada sortu eta bizi naizena, Arrangoitze ingurua. ○

LABURREAN— Kantari eta musikari ezaguna dugu euskaldunok Anje Duhalde lapurtarra (Arrangoitze, 1950). Makina bat bider abestuko genuen *Eperrak* kantua lagunartean bazkalondoan. Bada, horixe bera egin zuten Sopelan azaroaren 19an, *Aitxu!* Euskara Taldearen ekimenez. Anje Duhaldegaz batera abestu zituzten herritarrek kantak, Laiak tabernan. Baina euskal abesti zaharrak abestuagatik ez da atzean lotu Duhalde, kantu ezagun asko sortu du azken hamarkadatan. Gaur egun ere, ez dago geldi eta egitasmo bat darabil esku artean Txomin eta Urbil Artolagaz batera, laster emango dute ezagutzera, hainbat kontzertu prestatzen dabilza-eta.

CAFE
usategi
ALGORTA

gozatu gure berezitasunez
abrako ikuspeirik ederrenarekin



Jaiak antolatzeko leku paregabea

Lokal handia (200 m² baino gehiago) edozein adinetakoentzako jaiak antolatu ahal izateko

Zorionak guztioi!

usategi parkea z-g
telf. 94 460 64 13

GETXOarte


ARTE SORTU BERRIEN ARETOA • SALÓN DE LAS ARTES EMERGENTES

Abenduaren 3tik 5era arte

Areetako Geltokia plazako karpan


Ordutegia: 11:00 - 14:00, 17:00 - 21:30

Sarrerak: 2 €



2010
10 URTE

Dirua bankan aurkitzeko Sanjaqui Fundazioa Bereziki

 **Getxo**
2010-2018

 **DFA**
Diputazioa
Foroak

 **ERIKO**
Eusko Legebiltzarra
Basque Parliament

bbk

ELCORREO



metro bilbao

 **Getxo**
2010-2018